

argihizkiak

ArgIHizkiak erakusketaren inaugurazioa eta sari-banaketa: urriaren 1ean, Kultur Leioan. ▶11

Jakoba Errekondo agronomo usurbildarrak abiatu du Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren ikasturte berria, *Bizi baratzea* liburuagaz. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria




31. zenbakia

2015eko
irailaren 24tik
irailaren 30era arte

Himalaia, alderik alde

Iñigo Iruretagoiena getxoztarrak

Nepaleko mendilerroa zeharkatu du, bakarrik eta GPS barik, 74 egunean. ▶22-23



«Antzerkian, lanerako gogoia beharrezkoa da»



Itziar Lazkano portugaletetarra *Hoy, ultima funcion* antzeztan dabil Ramon Bareagaz batera. Areetako Andres Isasi musika-eskolan ere egongo dira.

Iraupen-lasterketa bat legez ikusten du antzerkigintza Itziar Lazkano aktoreak. Bere ustez, pazientzia beharrezkoa da, eta egiten duzuna asko maite. "Antzerkian aurrera egiteko

jarraitutasuna, trebakuntza eta lana beharrezkoak dira; baita umiltasuna ere", Lazkanoren iritziz. Berak 30 urte daroatza irriak eta malkoak ekarri dizkion lanbidean. ▶16-17

URIBE KOSTAKO UDA

ARGAZKI-LEHIAKETA

Bozkatzeko garaia!



Azken egunak!

Sartu www.hiruka.eus-en

Irailaren 25ean eta 26an, diseinu grafikoaren inguruko Serifalariak jardunaldiak egingo dituzte Getxon. ▶3

Erandiok errefuxiatuei harrera egingo die, aho batez alderdiek adostuta. Bertakoen laguntzak mantenduko dira. ▶6

Kultur Leioak prest dauka udagoieneko egitaraua. Abendura bitartean, hoguei ikuskizun egongo dira bertan. ▶14

Arraun-surfaren I.go Zirkuitua Plentzian amaituko da zapatuan. Uribekostarrak nagusi dira sailkapenetan. ▶18

Getxo

Itzubaltzeta gaztetxeak, 11 urte

Barikuan eta zapatuan ospatuko dute eraikin autogestionatuaren urteurrena, hainbat jarduera antolatuz.



2004ko irailaren 30ean okupatu zuten Errekagane kaleko eraikina.

Itzubaltzeta/Romoko gazteek Errekagane kaleko 1-5 zenbakiko eraikina bere egin zutenetik 11 urte igaro dira; 11 urte fabrika zahar hura ametsez eta kolorez betetzen, auzoa isiotzen eta «herritarren mesederako lan egiten». Eskualdeko gaztetxerik zaharrenetarikoa izanda, Itzubaltzeta gaztetxea erreferente bihurtu da egiteko horretan. 2004ko irailaren 30ean okupatu zuten eraikina, Ertzaintzak Santa Eugenia kalean zegoen gaztetxea hustu eta hiru egunera.

Egun hori gogoratzeko eta 11 urteak ospatzeko urteurrena abiatuko dute barikuan, hilaren 25ean. Elektrotzaranga bategaz, herriko kaleak alaituko dituzte egun horretan, baina egunik indartsuena hurrengo eguna izango da, hau da, zapatua. Egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako, eta goizeko 10:00etan hasi, eta goizaldeko ordu txikieta arte iraungo du. Tartean, truke-azoka, umeentzako jolasak, slackline-ikastaroa, batukada, bazkaria, skate-erakuskaldia, olinpiadak eta erromeria egongo dira auzoko gazte eta ez hain gazteen goza-

menerako. Aurten, gainera, jarduerak hainbat lekutan egingo dituzte, Itzubaltzeta/Romo osoan presentzia handia izateko.

Egitarau hori osatzeko, auzoko pertsonen, taldeen eta elkarten laguntza jaso du gazte asanbladak. ◀

Egitaraua

Irailak 25, barikua

20:30 Txupinaren jaurtiketa.

20:45 Elektrotzaranga, Santa Eugenia plazatik abiatuta.

Irailak 26, zapatua

10:00-15:00 Truke-azoka (Erromotruk).

11:30 Umeentzako jolasak eta buruhandiak, Kolas plazan (Itzubaltzeta).

12:00 Slackline-ikastaroa, Santa Eugenia plazan.

13:30 Batukada, Santa Eugenia plazatik.

15:00 Gazte-bazkaria, Santa Eugenia plazan; txartelak 6 euroan salgai.

16:30 Skate-erakuskaldia, Areetako skateparkean.

18:00 Okupaolinpiada musikatu, Santa Eugenia plazan.

21:00 Honat taldeagaz erromeria, Santa Eugenia plazan.

Urriaren 24an izango da XVI. Indabada, Txiki Otaegi plazan

Urtero legeaz, urriaren akabuan Indabada Mundiala egingo dute Algortako Txiki Otaegi plazan (San Nikolas plaza). Hamasei urte igaro dira lehenengo baba-jan handia egin zutenetik, eta harrezkero eskualde osoko ehunaka lagun batzen dituen hitzordu bihurtu da. Hala, egun handi hori prestatzeko herri-bilerak egiten hasi dira, domekaro, Txiki Otaegi plazan, arrastiko 07:30ean. Lehenengo bilkuran batutako gazteek urriaren 24a aukeratu zuten aurtengo Indabada egiteko; hala ere, asko dago egiteko oraindino, eta apurka-apurka dena prestatzen ibiliko dira, eguna heldu bitartean. ◀

Bidelapurak eta Fiachras taldeen kontzertua, 26an

Apirilaren 1etik 10era ospatuko dute Getxoko Txorimalo gaztetxearen urteurrena. 10 urteoi begira 10 egun horiek antolatzen hasi dira daborduko. Hala ere, lanean hasteaz gainera, urteurrena autogestionatzeko bideari ere ekin zioten aspaldi. Hala, dirua lortzeko hurrengo ekimena hilaren 26an, zapatuan, izango da, Txorimalo gaztetxean bertan. Bertan izango dira Fiachras eta Bidelapurak taldeen kontzertuak, iluntzeko 09:00etatik aurrera. Musika emanaldirako sarrera 5 euroan lortu ahal izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Bertan, Fiachras taldeak *Amnesia eta argia* diskoa aurkeztuko du. ◀

Festa giroak hartuko du Areeta aste-akabu honetan

Barikuan, hilaren 25ean, hasiko dira Areetako Mesedeetako jaiak. Egurdiko 13:00etan adinekoentzako mokaduak eskainiko dituzte, Eskoletako plazan. 19:00etan, berri, ofizialki emango diete hasiera ospakizunei, txupina jaurtiz eta pregoiaren irakurketagaz. Ostean, herrian kalejira egingo dute. 21:00etan umeentzako antzerkia izango da, eta ordu berean DJ Radio Vinilok ipiniko du musika, Adiskidetasun kalean. Amaitzeko, 22:30ean Bon Joviri gorazarre egingo diote Eskola plazan. Hurrengo egunean, herri-kirolen ikuskizuna, mus txapelketa, puzgarriak, tailerrak, kuadrillen playbacka eta kontzertuak



egongo dira Keep Calm taldeagaz. Domekan, oster, artisautza-azoka, herri-lasterketa eta disko-festa egongo dira. Halaber, zelan ez, barraskilo-platerik onena aukeratzeko dute, txapelketaren XX edizioan. Paella-txapelketa ere egun berean egingo dute. ◀

2015-2016 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK-MATRICULA ABIERTA

Maila guztiak - Todos los niveles
Goizez eta arratsaldeaz - Mañana y tarde

Azterketa ofizialak prestatzeko
ikastaroak larunbatetan

Algortako etorbidea, 104
48991 - Algorta (Getxo)
94 460 66 71
j.a.agirre@euskalnet.net

MATRIKULA:
Irailaren 2tik 25era
Del 2 al 25 de Septiembre

BULEGO ORDUTEGIA:
10:00 - 13:00
17:00 - 20:00

PARA ALUMNOS DE ENTRE 6-16 AÑOS/6-16 URTEKO IKASLEENTZAT

3 HORAS SEMANALES/ASTEAN 3 ORDU: Lunes y miércoles o martes y jueves / astelehen eta asteazken edo astearte eta ostegun (17:30 - 19:00)

MATRIKULA: 260 €

Refuerzo de la asignatura, aprendizaje lúdico, tiempo para preparar exámenes y hacer los deberes. Ikasgaia sendotzeko, ikasketa jostagarria, etxerako lanak egiteko eta azterketak prestatzeko

Matriculas y más información:
J.A. Agirre Euskaltegia
Algortako Etorbidea, 104 tlf: 94 460 66 71

Getxo



Serifalariak izeneko jarduerak hilaren 25ean eta 26an egingo dituzte. GETXOKO UDALA

Diseinu grafikoaren eta sormenaren topaketak Areetan

Irailaren 25ean eta 26an Serifalariak Ideritzen jarduerak egingo dituzte Getxon; diseinatzaile grafiko eta sormenaren zaleentzat sortu dituzte topaketa horiek. Estudio Marina Goñi eta Freskue Studio enpresa getxoztarrek antolatu dituzte. Hilaren 25ean berbaldiak izango dira protagonista, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Bertan, estudio garrantzitsueta-ko hainbat ordezkariak eta diseinua- ren profesionalak jardungo dute egun osoan: 09:30etik 19:15era. Hurrengo egunean, hilaren 26an, tailerrak eta klaseak izango dira Getxolan-Ekono-

mia eta Enplegu Sustapenerako Zerbitzuen egoitzan, Areetan. Profesionalak hainbat eskola emango dituzte, parte-hartzaileek teknika eta sormen-prozesu ezberdinak ikasi ahal izateko. Aurten, nobedade bezala, Raquel Marinek ortotipografiaren inguruan egingo du berba hitzaldi nagusian.

Toapeketetan parte hartzeko interesa dutenek sarrerak erosi beharko dituzte: 25 euro berbaldietara joateko; 40 euro tailerretara joateko, eta 55 euro bietara joan ahal izateko. ◀

info+: www.getxo.eus
www.serifalaris.com

Getxoko pintxorik onena aurkitzeko lehiaketa, martxan

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Getxolanek antolatuta, azaroaren 7an, 8an, 14an eta 15ean egingo dute GetxOnegin pintxo-lehiaketaren VI. edizioa, goiz eta eguerdian. Horretan parte hartu gura duten ostalaritza-establezimenduek urriaren 2ra arte izango dute izena emateko aukera. Gehienez, 60 establezimenduk

parte hartu ahal izango dute. Ostalaritza eta euskara uztartzeko helburua dauka lehiaketak: «euskara kalitate gehigarritzat hartuta, eta udalerriaren irudi gastronomikoa indartzea», azaldu dutenez. Parte-hartzaileek pintxo bat aurkeztu beharko dute, euskarazko izena izango du, eta euro baten truke salduko dute. ◀



GETXOKO UDALA

Bide-garbiketako zerbitzuak ibilgailu berriak dauka: elektrikoak eta gasdunak dira, potentzia handiagokoak, isilagoak, eta CO2 emisio gutxiago eragingo dutenak, eta «herriarrei enbarazu gutxiago egingo diete», arduradunen arabera; 2,5 milioi euro inbertitu dituzte.



ZU BAINO EZ ZARA FALTA

Euskara ikasi, hobetu edo erabili nahi baduzu hementxe duzu behar duzun informazio guztia.

www.getxo.eus/euskara



Getxo

Aurrekontuak osatzeko eskua luzatu dio EH Bilduk EAJri

Getxoko EH Bilduk prestasuna agertu du EAJgaz aurtengo aurrekontuak eztabaidatzeko. «Gure baiezta eta babesa eskura dezake, beti ere Getxoren onerako badira, eta beti ere lau baldintza betetzen badira», adierazi du koalizio abertzaleak. Aurrekontuak bete beharreko lau baldintza horiek honakoak izan beharko liratekeela diote: parte-hartzaileak izatea, murrizketarik ez onartzea, benetako negoziazio bat egitea, eta Osoko Bilkuran aurkeztea eta bozkatzea. Gauzak horrela, aurrekontuak garaiz lantzeko deia egin dio EH Bilduk EAJri.

Azken lau urteetan, jeltzaleek gauzak «ezkutuan eraman» nahi izan dituztela adierazi du koalizio abertzaleak. Egindako lana dela eta, herritarrek aurrekontuakaz kezkatuta daudela uste dute. Gogoratu dutenez, azken lau urteotan udalerriak ez du aurrekonturik izan; hori dela eta, «negoziazioa eta parte-hartzea ez dira inondik inora agertu», salatu dute. Izan ere, herritarrek «Getxoberri aldizkariako propagandan» izan dute aurrekontuen berri. Horren harira, getxoztarrek euren zergak «zelan eta non» inbertitzen dituzten erabakitzeke eskubidea dutela uste du EH Bilduk. ◀



Getxoko etxebizitzak metro koadroak 2.861 euro balio du, batez beste.

Getxoko etxebizitzak Bizkaiko garestienak

Getxo da Euskal Herrian etxebizitzatza bat erosteko herririk garestiena, Donostiaren atzetik; baita espainiar estatuan ere. Getxon, 2.861 euro ordaintzen dira metro koadroko, Sustapen Ministerioak jakinarazi duenez. Izan ere, metro koadroa 1.476,8 euroan dago batez beste. Datuen arabera, gainera, etxebizitzaren prezioa %1,2 igo da aurtengo bigarren hiru hilabeteetan, iazko datuak alderatuta.

Bestalde, INEk emandako informazioagaz AIS Groupek ikerketa bat egin du, eta azaldu duenez pobrezia-arris-

kuan dagoen biztanleria-tasa txikienetarikoa duela Getxok: % 7,5eko tasa, hain zuzen ere. Gasteiz eta Iruñea ere badaude zerrenda horretan, % 7,3 eta % 8,1eko tasagaz, hurrenez hurren.

INEk adierazitakoaren arabera, ostera, Espainiar estatuko biztanleriaren % 22,2 pobrezia-arriskuan dago. Era berean, ikerketaren arabera, penintsulako hego-erdialdean daude pobrezia-arriskurik handiena duten herriak; eta Ceuta da, hain zuzen, portzentajerik altuena duen herria, % 44,3ko tasagaz. ◀



Tioçfaidh ár lá

OIER ITURRALDE FERNANDEZ
«ATANO»
EH Bildu

«Izan zirelako gara, garelako izango dira»

Hala dio esaerak, eta hala ekarri nahi nuke gaur gogora, nire txokora. Igandean Txiki eta Otaegi hil zituztela 40 urte beteko dira, hilzorian ei zegoen erregimen frankistaren azken «kunitazoa». Lau hamarkada luze bezain gorabeheratsu, herri odolustu honen historiaren katebegi latza. Zauriz eta minez jositako 40 urte, baina baita ondo gogoan hartzeko borrokalari bolondresen zerrenda luze baten lekuko ere.

Zoru etikoa, barkamena, errekonozimendua, damua, min bigegabea... eguneroko ogi ditugun garaiotan, bolondres haiek oroitu eta euren ekarpen historikoari gorazarre egiteko esku-bidea aitortu behar zaigu; maite genituelako, maite izan zituztelako, oroitzean maite ditugulako, gure ondorengoek gogora ekartzean maita ditzaten. «Maitasunak bete diezagun memoria», zioen Katamalak.

Txiki eta Otaegi Euskal Herriko zeru gainean piztutako izar berri bi izan ziren, eta egun ere badira. Haien ondotik, gure ortzimuga argiztatuko zuten ehunka izar gorri gehiago piztu ziren, batzuk borrokaren gordinean eroriak, beste batzuk ziegetan itoak, edo komisaldegietan zanpatuak. 40 urte, urte asko baitira ukazio eta zapalkuntzan tematutako estatu espainol eta frantsesaren azpian makurturik bizirauteko; hargatik sortu ziren «borroka hontan iraungo zuten zuhaitz adaxka gazteak».

40 urte baino askoz ere gehiago dira igandean gogora ekarri behar genituzkeenak. Ezin genezake hasiera datarik ezarri, baina lekukotasunen arabera historikoa da euskaldunon autodefentsarako eta borrokarako grina eta presuntasuna. Mendetako milaka gudar dira irailaren 27ko subjektu.

Igandean, guzti haien oroi-menez, irrintzi ozena entzun dadila gure mendi tontorrean. ◀

Iturribarri inguruan 575 etxebizitza inguru eraiki gura dituzte

Azken asteotan, Algortako Iturribarri inguruko ortuak husteko agindua zuen gutuna jaso dute hango auzotarrek, «berekala martxan jarriko duten urbanizazio-prozesua dela eta». Hezetasuna Auzoko Bizilagunen Taldeak deia egin du udalerriko auzoen «nortasuna» sortzen duten eremu berdeak babesteko; hala, auzotarrei eskatu die balkoi eta leihoetan bandera berdeak eskegitzeko, «ados ez daudela erakusteko, Udalari eta eraikuntza-enpresei». Era berean, akordura ekarri dutenez, eguenero itxoten egongo dira San Nikolas ikastolaren aurrean 19:30ean.

Udalak jakinarazi duenez, 352 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 147-223 inguru eraikiko dituzte, ezarritako eraikitze-tipologiaren arabera. Azaldu duenez, eraikinek lau solairuko altuera izango dute, eta eraikin arteko gutxienezko tartea 8 metrokoa izango da.

Irailaren 25a baino lehen landak husteko epea eman zien enpresak auzokideei; hala ere, auzotarrek tarte handiago eskatu dute uzta jaso ahal izateko. ◀

GetxoGas

Txartel hau
aurkezten baduzu
**%50eko
deskontua**
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)


KONTXI
ZUÁZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaitegiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GOIZEAN



“Gozki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa”
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Liburariak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

aek
euskara praktikoa

eman izena euskaltegian

URIBE KOSTAKO AEK
ZATOZ GUREKIN!

Leioa: 944 646 063 iamia@aek.eus
Getxo: 944 304 734 lauceta@aek.eus
Plentzia: 946 773 607 jentilaso@aek.eus
Gorliz: 946 773 646 jentilaso@aek.eus

www.aek.eus/blogak/uribekosta
www.facebook.com/uribekostako.aek

30 urtean,
50.000 lagunek
ikasi dute
euskara
gure 100
euskaltegietan

Erendio



Ezkerretik, Rafa Vaquero (Ganemos), Elena Perez (PSE-EE), Egokiñe Angulo (EAI), Joseba Goikouria (alkatea), Aiala Eguiluz (PP) eta Ana Crespo (EH Bildu)

Errefuxiatuei harrera egiteko, denak ados

Errefuxiatuekiko elkartasun-adierazpena adostu dute Erandioko alderdi politiko denek. Udalak prestasuna agertu du Siria eta Irak kolpatzen dabiltzan gatazka armatuek eragindako krisi humanitarioko errefuxiatuei «harrera eraginkor eta iraunkorra» egiteko, bertakoei babesa murriztu barik.

Erandiok «elkartasun osoa» adierazi die «gerran dauden herrialdeetako errefuxiatuei», eta prest agertu da «mereziz duten harrera eraginkor eta iraunkorra» egiteko. Humanitate-arazoari erantzuna emateaz gainera, ordaindu gura dute iraganen milaka euskal herritarrek migrazioaren eta «erbeste politikoaren drama pairatu behar izan zutenean jaso zuten elkartasuna».

Berbez gainera, hainbat neurri jasotzen ditu Udal Bozeramaileen Batzordeak aho batez onartutako testuak. Horietako bat da Europar

Batasunari «asilu politikoa eskatzen duten pertsonakaz eskuzabaltasunez jokatzeko» eskatzea, «immigrazio eta babesa emateko politika bateratuen» bidez. Era berean, Erandioko Udalak konpromisoa hartu du errefuxiatuei, eta, bereziki, umeei «harrera egiteko bitartekoak» jartzeko; esaterako, «laguntzak eta etxebizitzak».

Horretarako, euren ekarpena egin gura duten pertsona eta kolektiboak lan egingo du Gizarte Ekintza Sailaren bidez, baliabideen informazioa batu eta erregistro bat prestatzeko. «Hainbat auzotarrek, daborduko, etxeren

bat eskaini digute», azaldu du Joseba Goikouria alkateak. Bestalde, iheslariakaz lanean dabiltzan Euskadiko CEAR eta ACNUR erakundeei 3.066,92 euroko laguntza eman die Udalak. Goikouriak adierazi duenez, EH Bilduk eta PSE-EEK adierazpen bana aurkeztu zuten, eta alderdi denek begi onez ikusi eta ekarpena egin zuten akordioa errazteko: «borondatea egon da».

Ana Crespo EH Bilduko bozeramaileak azpimarratu duenez, «herrian bestelako beharrak egon badaude. Ez zaie bizkarra emango: horrek gehitu egingo du, ez ordezkatu». ◀

Volbas-eko langileek itxieraren aurkako protestei ekin diete

Enekuriko Volbas SA enpresaren 20 bat beharginek mobilizazioak iragarri dituzte euren lanpostuen defentsan. Orain dela aste batzuk, Erandioko Udalak jakinarazi zuen Enekuriko zabortegia ixteko erabakia hartu zuela, instalazio horren lizentzia 2011ko abenduaren 13an iraungi eta auzitegiek enpresaren hainbat helegite atzera bota ostean. Zabortegiaren itxierak ekarriko du hirigintza eta eraispen hondakinen birziklatze-plantaren amaiera ere. Enpresak zortzi hilabete-ko epea dauka jarduera eten eta instalazioak ixteko. Halere, Volbas SAK udal erabakiaren aurkako errekurtsoa aurkeztu du daborduko.

Kaleratu ostean, alternatibarik ez Volbaseko langileek iragarri dute «gure lanpostuak defendatzeko behar diren mobilizazio denak» egingo dituztela. Beharginek bat egin dute enpresaren zuzendaritzagaz, eta eskertu diote «urteetan plantaren funtzionamendua mantentzeko eta lanpostuak gal ez zitezen egindako ahalegina». Gogoratu dutenez, «une larriak» dira euren sektorean.

Kaltetutako langileek EAJ eta PSE-EEren Udal Gobernuaren aurka egin dute, kaleratuko dituzten beharginei «herriko beste enpresaren batean edo beste udalerrietan» alternatibarik eskaini ez diela salatuta. Are gehiago, «erabakia erabat politikoa» izan dela salatu dute, eta, kasu horretan, oposizioari bota diote errua. Izan ere, aurreko legealdian PSE-EEK eta EH Bilduk hainbatetan salatu zuten Volbasek jarduera-lizentzia barik funtzionatzea, «irregularra» baitzen. Langileek ez dute horrela ikusten, eta salatu dute haien kaleratzeak «alkatetz hartzeko gerrilla-borroka zeharkaltea» izango direla. Beharginen %15ek urritasunen bat dute. ◀

Osasun Jaia egingo dute zapatuan, Irailaren 23a plazan

Erandioko Droga-menpekotasunen Prebentziorako Udal Batzordeak Osasun Jaia antolatu du zapatu honetarako Altzagan, udaletxearen aurreko plazan. Festaren 22. edizioa izango da, eta udalerriko ume eta gazteei zuzenduta dago, batez ere. Izan ere, aurreko urteetan legez, aurtengo ekitaldian ere garrantzi berezia eman go diete Umeen Eskubideei. Irailaren 26an 91 urte beteko dira, Umeen Esku-

bidei Buruzko Ginebrako Adierazpena onartu zenetik. Jaia Altzagan izango da, 10:00etatik 14:30era. Bertan, jarduera jolasgarri eta animaziozkoak egingo dituzte, bizimodu osasuntsua eta ingurumenaren babesa sustatzeko, eta alkoholaren edarien zein tabakoaren kontsumoa prebenitzeko. Jolasak, tailerrak, puzgarriak, musika eta beste hainbat gauza gozagai izango dituzte hurbilduko direnek. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



Leioa

Txopoetan ez da festa makalik



Lehenengo aldiz egingo dute sukalki txapelketa. © URDULIZKO UDALA

Barikuan hasiko dira Txopoe-tako Mikel Deunaren jaiak. Leioako auzoetako jaien denboraldia zarratuko dute. Txapligua 18:00etan botako dute jai-batzordeko kideek, festari bidea egiteko. Txorizo-jana, pokerra, soinu elektronikoa, tabernetako jai tematikoak, eta umeen talentuak ez dira faltako lehenengo egunean. Zapatuan ere, deneriko menua izango da: sukalki-lehiaketa, umeen jolasak, azeri-ehizaren jolasa, Txopolinpiadak eta erromeria. Domekan, berriz, dantzak, meza eta Musika Banda izango dira. ◀

Ekitaldi batzuk

Irailak 25, barikua

18:00 Pregoia eta txupina.

21:00 Umeentzako talentu lehiaketa.

22:00 La Txopera Electronic Party.

22:30 Jai tematikoak, tabernetan.

Irailak 26, zapatua

09:00 Txopoe-tako I. Sukalki Lehiaketa.

13:00 Azeri-ehizaren jolasa.

18:00 Txopolinpiadak.

22:00 Umeen moztorro-txapelketa.

02:00 Bingoa.



Behargintzak formakuntza-ekintza berriak antolatu ditu

Leioako Behargintzak tailer eta ikastaro berriak antolatu berri ditu, Lanbideren orientazio-zerbitzuan hartutako pertsonen artean antzemanda-ko beharrezanean erantzuteko asmoz. Ekimen horien helburu nagusia da lana bilatzeko langabetuek erabiltzen dituzten tresnak hobetzea eta nortasun profesionala lortu edo egiazta-

tzea. Hori dela eta, hilean 10 orduko enplegu bilaketarako tailer bat eman- go dute, Lanbideko orientatzaile batek zuzendua. Besteak beste, Lanbideren webgunea hobeto ezagutu, curriculu- ma, aurkezpen-gutunak eta lan-elkar- ritzetak prestatu eta autoebaluazio- rako tresna bat diseinatuko dute. ◀

info+: Behargintzaleioa.net/eu

Eskola Laguntza programan boluntario bila dabilta

Leioako Udalaren Gizarte-hezkun- tzako Eskuhartze Taldeak (GET) boluntarioak bilatzeari ekin dio. Inte- resa dutenek Eskola Laguntza Progra- man jardungo lirarteke, astean pare bat orduz, 5 eta 14 urte bitarteko ume eta gaztetxoakaz. Ikasketa-ohiturak lan- du eta ikasgaietarako laguntza eman- go liekete, beti ere gainbegiratuta. ◀

info+: 944 010 911 / eiseleioa@leioa.net

Urrian abiatuko dute matrikulazio-epea haurreskoletan

Udalerriko haurreskolen matriku- lazio-epea urriaren 1etik 9ra arte izango da zabalik, Leioako Udalak ja- kinarazi duenez. Artatza auzoko hau- rreskolak oraindino leku bat dauka libre, 1-2 urteko gelan. Udal Musika Eskola ondoan, Altzoan haurreskolan, ostera, 6 leku daude oraindino. ◀

izen-ematea: 944 048 601 (Artatza)

eta 946 072 599 (Altzoan)



Kandelazubietan irisgarritasuna hobetzea agindu du Udal Gobernuak.

Kandelazubietak konponbidea behar duelakoan daude

Kandelazubieta auzoko «hirigin- tzaren hondatze-egoera dela eta», Leioako EH Bilduk inbertsio-plana es- katu du auzoaren hirigintza birmolda- tzeko. Koalizioak azaldu duenez, he- rritarrek hainbat kexaren berri eman diete, espaloien, estolderien, zoladu- ren edo eskudelen egoera dela eta. Horiek egiaztatu ondoren, Hirigintza Batzordean eskatu dute inbertsio-pla-

na abian ipintzea. EH Bilduren ustez, Pinueta, Lamiako, Txorierri, Ikea Men- di edo San Juan auzoetan lege, Kan- delazubietak ere «urteotan Udalaren utzikeria pairatzen du». Era berean, inbertsio-plana «herritarrakaz batera diseinatzea» proposatu dute. EAJk eta PSE-EEk ere hainbat neurri iragarri zu- ten auzorako, Udal Gobernurako akor- dioa aurkeztean. ◀



Krisalida

JOXE BELMONTE F. DE LARRINOA
Idazlea

Europa ikas zazue!

Umeek esan behar izan dizkiote egia biribilak Europari. Siriari ume batek oihera egin zuen turkiar hondartza batetik: hil egiten gaituzte, zabaldu ateak. Bizitza eman behar izan zuen mezu hori transmititzeko. Lotsa! Irudi batek milioika hildakok baino gehiago balio izan du, antza denez. Orain dela ez asko Mediterraneo zeharkatu nahi zuten pertsona hauei etorkin izena ematen zieten Europako gobernuak, arazoa sinplifikatu nahian, Mendebal- deak probokatutako gerra eta beste ahaztuz. Beste ume siriari batek errepikatu behar izan zien egia: gelditu gerra, eta ez gara Europara joango.

Ume hauen mezua ulertu da Europan? Inor lotsatu al da? ◀

Berbaldun
EUSKARAZ EGIN DEZAGUN

Urritik aurrera eman izena
berbaldun.leioa@gmail.com
t. 688 850 129

Leioa
Mendebaldeko Euzkadi

Sopela

«Bizirik dagoen zerbait da gure ikuskizuna»

Idurre Azkue Iruretagoiena dantzariak *Dantza Gurea* ikuskizuna aurrestreinatu du Sopelan. Joseba Irazokigaz batera, zuzeneko musika eta dantza eskaini dituzte.



Bilboko Errekalde aretoan ikusi ahaliko da ikuskizuna berriro, urriaren 29an.

Idure Azkue Iruretagoiena zarauztarrak ia urte bi darotza Getxon bizitzen, eta Sopelan sortu du *Dantza Gurea* ikuskizuna. Joseba Irazokiren doinuei jarraituz, ikuskizun berezia eskaintzen dute oholtzaren gainetik.

Zelan joan da aurrestreinaldia?

Interesgarria izan da zuzenekoari pul-soa hartzeko, eta adrenalina hori ikusteko. Jendeari ireki, eta argiekin probatzeko.

Musikaria eta dantzaria, zuzenean.

Badaukagu egitura bat, eta horrek ba-

besten gaitu; horren barruan inprobisatzen dugu. Eta egitura sortu dugu, era berean, inprobisazio batzuren arabera. Esan daiteke momentuan bizirik dagoen zerbait direla zuzenekoak.

Sorkuntza-prozesua etenbakoa da?

Bai, eta jarraitzen dugu. Estreinaldia Bilbon daukagu, urriaren 29an, Errekalde aretoan. Ni bakarrik hasi nintzen, baina une jakin batean, konturatu nintzen zuzeneko musika behar nuela. Orduan, Josebarengana jo nuen. Nik proposatutakoak probatzen genituen, baina, azkenean, musika-oina-

rria berak proposatutakoa da; horren gainean, biok joan gara eraikitzen. Taulan, 40 bat minutu dira, eta erronka izan da. Aurrestreinaldian konturatu naiz uste baino gogorragoa dela zailtasun fisiko aldetik. Josebarentzat ere bai: ohituta dago kontzertuak ematera, abestiak hasi eta bukatu. Pieza bakarra da hau, eta ez da gelditzen.

Gainera, elkarreraginean zabiltzate.

Gustatzen zait esatea kontzertu bat dela, baina dantza egiten duen gorputz batekin. Ikerketa izan da; mugimendu guztiak musikaren arabera sor-

tu ditut: notek, bibrazioek, nola egiten duten talka nire gorputzean, eta zer mugimendu eraikitzen dudana.

Ondoriorik ateratzen hasi zara?

Gorputza mugitzeko, beste bide batekin joan naiz; mugitzeko beste era bat topatu dut. Zehazki, gorputz atalekin egiten dut lan asko. Gorputz osoa ere mugitzen dut, osotasunean. Musikarekin lan egitearen ondorioa izan da.

Irazokiren musika bereziagaz?

Oso pertsonala da musika, horregatik deitu nion. Tresna pila bat erabiltzen du. Pentsatu nuen berarekin lan egiteak oso interesgarria izan behar zuela. Zuzenean grabatzen ditu soinua eta ahotsak, gero errepikatzeko: lupak egiten ditu. Entzuten dugun dena da berak momentuan grabatutakoa. Nolabait, beti da berria.

Hainbat dantza-estilo lantzen dituzu.

Proiektuarekin baneukan gogo dantza-mota desberdinei erreferentzia egiteko. Adibidez, txintzarriekin euskal dantza hartzen dut, baina pixka bat deformatzen dudala esan daiteke. Berdin kriskitinekin eta flamenkoarekin. Ez dut flamenkoa dantzatzeko, baina badauka kutsua. Irazokik eskaintzen dit hori ikertzeko aukera.

Azken fasea, Sopelan sortu duzue?

2013an idatzi nuen proiektua, eta diru-laguntza eskatu nion Eusko Jaurlaritzari. Joseba 2014an etorri zen. Beste egoitza artistiko batzuk izan ditugu: Getxoko Utopian eskolan, Bartzelonan, Bilbon... Hainbat laguntza eman digute. Azken prozesua Bilbo Eszenan izango da: beka eman digute. Prozesu zaila izan da, pixkanaka joan da, baina ondo. Oso gustuko dut kontzertuen zuzeneko energia; horregatik ere aukeratu nuen Joseba. Ez da berdina, baina horrelako zerbait topa dezake ikusleak. Oso bizirik dagoen zerbait, zuzenean gertatzen dena. Musika eta dantza. ◀

Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

DIDAK hAMILTON

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TF 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Barrika

Ikastaro ugari antolatu dituzte kurtso osorako

Euskara, sukaldaritza, pintura, ardoa dastatzea, defentsa pertsonala, garagardoa dastatzea izango dira, besteak beste, ikasgaiak; izen-ematea, hilaren 30era arte.



Ikastaroren batean izena emateko udal kultur gunera jo beharra dago.

Urtero legez, Barrikako Kultur Etxeak hainbat ikastaro antolatu ditu 2015-2016 ikasturterako. Hala, euskara, sukaldaritza, pintura, ardo-dastatze, garagardo-dastatze eta defentsa pertsonalerako tailerrak izango dituzte aukeran herritarrek. Euskaraz ikasteko eskolak martitzen eta eguenetan izango dira; maila bi egongo dira: oinarritzkoa, 17:30etik 19:00etara; eta erdikoa, 19:30etik 21:00etara. Sukaldaritza eskolak ere maila bi eskainiko ditu: burujabetza, martitzenetan 19:00etatik 21:00etara; eta landua, eguaztenetan 19:00etatik 21:00etara. Pintura eskolak barikuetan izango dira, 19:00etatik 20:30era; eta defentsa pertsonala, eguaztenetan 19:00etatik 20:30era. Ardoa eta garagardoa dastatzeko 6 saio izango dituzte, barikuetan 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroren batean interesatuta eta Barrikan erroldatuta ez daudenek irailaren 30era arte eman dezakete izena, udal kultur gunean. ◀

info+: www.barrika.eu
harremanetarako: 946 775 163
liburutegia@barrika.net

Kaleko argiteria berriztatuko dute, kontsumoa gutxitzeko

Udalak kaleko argiteria berriztatuko du, bola itxurakoak kendu, eta led izenekoak jarriko dituzte. Izan ere, azaldu dutenez, «ekologikoagoak eta merkeagoak dira, eta hobeto argitzen dute». Hala, 120 farola aldatuko dituzte Garramunen eta Elejalde eta Larretzeko oinezkoentzako bideetan. Era berean, Artepeetan ekipo orekatzaile-murritzaillea ipiniko dute. Lanok 97.792 euroko kostua izango dute; hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak zenbateko horren % 60ko diru-laguntza eman du. Hirigintza eta Ingurugiroko zinegotzi Vicente Garciaren arabera, «Barrikarentzat oso garrantzitsua da kontsumo energetikoaren % 60 inguru murriztea, horrek 13.500 eurok aurrezteara eragingo duela. Gainera, guretzat garrantzi ekologikoa handia du urtero 55 tona CO2 isurtzeari uzteak». Ekimen txikia bada ere, Udalak uste du aurrerapauso garrantzitsua dela iraunkortasunaren bidean. ◀

Urduliz

Emakumeentzako hamaika ikastaro antolatu ditu Inolak

Inola Urdulizeko emakumeen elkar-iteak hamaika ikastaro antolatu ditu ikasturte honetarako. Prestatutako kurtsoak honako hauek dira: grafologia, diafreoterapia (gorputz-hezkuntza), tai xi-a, gimnasia, pilatesa, eskulanak, zinea, «Gorputza sentitzen» ikastaroa (emakumeen gorputzaren funtzionamendua ikertzeko), feminitatearen labirintoa (emakumeen bizitza pertsonal, familiar eta sozialaren kontziliazioa), gimnasia hipopresiboa (zoru pelbikoa indartzeko), energiaren dantza, eta *bodybalance* izenakoa. Horietakoren batean parte hartzeko interesa dutenek hilaren 24ra arte dute izena emateko aukera, 19:00ak arte.

Emakumeen kultura-elkartea da Inola; 1994an sortu zen. Horren helburua emakumeen onurarako lan egitea da, hezkuntzaren eta ekintza sozio-kulturalen marko baten barruan. ◀

info+: amujerinola@gmail.com / 946 763 469

Berango

Halloween Port Aventuran ospatuko dute auzotarrek



Berangoko auzotarrek Halloween egunak Tarragonako Port Aventura parkean ospatzeko aukera dute. Izan ere, urriaren 10etik 12ra asteburu pasa Saloura irteera antolatu dute, Port Aventurak eskaintzen duen guztiagaz gozatzera. Urriaren 10ean irten-go dira Moreagatik, goizeko 06:00etan. Egun horretan bertan, gura dutenak

parkera joan ahal izango dira; besteek egun libreza izango dute. Domekan ere, aukera berberak egongo dira: parkea edo egun libreza; eta urriaren 12an, asatelehenagaz, Berangora bueltatuko dira. Izen-ematea hilaren 21ean amaitu zen. Bidaia ordaindu, berriz, irailaren 25a baino lehen egin beharra dago. ◀

info+: berangokultura@berango.org

Dantzan ibiliko dira auzotarrak zapatuan, Goatekean

Berangoko auzokideak 60ko eta 70eko hamarkadetara bueltatuko dira irailaren 26an, zapatuagaz. Izan ere, egun horretan hamarkada horietan oinarritutako goatekea egingo dute, arrastiko 07:00etatik aurrera. Eguraldi ona eginez gero, Nagusien etxearen ondoko plazatxoan egingo dute jaia; oster, euria bada, frontoian egingo dutela iragarri dute antolatzaileek.

Giroa ahalik eta ondoen berotzeko, antolatzaileek mozorroa janzteko deia egin diete parte hartu gura duten interesdun denei. Hala, mozorrotuta doazenek zozketa batean parte hartzeko aukera izango dutela iragarri dute. Hortaz, badakizue, arakatu etxe-ko armairu guztiak, trapu eta kamiseta zaharrei hautsa kendu, eta prestatu 60 eta 70 hamarkadetako musikagaz dantzatzera. ◀

info+: www.berango.org

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



Uribe Kosta

Emakumeak, martxan!

Emakumeen Mundu Martxa urriaren 4an helduko da Getxora, Bilbora joan aurretik.

Martxoaren 8an hasi zuen bidea Emakumeen Mundu Martxak. Kurdistanen hasi zen karabana feminista, eta ia zazpi hilabeteren ostean, hilaren akabuan helduko da Euskal Herrira, hilaren 28an, hain zuzen ere. Martxan, «herrialde guztietako milaka emakumek munduari erakutsiko diote zer-nolako alternatiba feministak proposatzen dituzten eredu kapitalista eta heteropatriarkalaren aurrean», azaldu zuten Euskal Herriko martxaren aurkezpenean. Karabana irailaren 28an helduko da Euskal Herrira; urriaren 4an Uribe Kostatik igaroko da, Bilbora joan eta Galiziarako bidea hartu aurretik.

Portugaletetik Getxora ◀

Emakumeen Mundu Martxa urriaren 4an helduko da Uribe Kostara, Portugaletetik Getxora, Bizkaia Zubia hartuta. Goizeko 10:30ean helduko da



Urriaren 17an amaituko da Europako karabanaren ibilbidea, Coimbran (Portugal).

gurera, eta zubiaren parean egingo diote harrera eskualdeko emakumeek. Goizeko 09:00etatik egongo dira zain, bertan egingo duten gosariagaz. Ordu bete beranduago, 10:00etan, etxe-ko langileen elkarteak euren egoera salatuko du zubitik gertu dagoen ABLE Aldi Baterako Lan Enpresaren ondoan. Martxa heldutakoan, karabanak Areetatik ibilaldia egingo du, eta Itzubaltzeta/Romoko Santa Eugenia plazan geldialdia egingo du bertoko eragile feministek urte osoan egin-dako borrokak ezagutarazteko. Gero,

martxan jarraitu, eta Algortarako bidea hartuko du karabanak; 11:30ak inguru Txiki Otaegi plazan beste geldialdi bat egingo du. Bertan, Algortako eragile eta elkarte feministek ere euren borrokak eta dinamikak ikus-taraziko dituzte, «modu zaratsatu eta parte-hartzaile batean egin nahi dugu hori», azaldu du Uxune Iriondo Algortako Bilgune Feministako kideak. Egurdiko 12:00etan, karabana itsa-sadarretik Bilbora joango da; 12:30ean Euskal Herriko martxa amaitu, eta Galiziarako bidea hartuko du. ◀

Plentzia

Nabigazioa hobetzeko lanak abiatuko dituzte itsasadarrean

Ana Oregi Eusko Jaurlaritzako In-gurumen eta Lurralde Politikako sailburuak Plentziako portuko sako-nera hobetzeko zehaztutako konpon-bidea aztertu du. Hala, San Valentin dikearen ondoko itsasadarraren azken zatia aldatuko da, nabigazio-kanala sakonera handiagoko gunera birbide-ratzeko. Lanok milioi erdi euro balioko dute, eta 8 hilabeteen egingo dituzte. Portuak 140 kirol-amarraleku ditu, bai-ta baimen bako beste 400 inguru ere itsasadarrean. Azken horiei konpon-bidea eman gura diete; hau da, leho-rraen gorde. ◀

Burdinaren garrantzia azaltzeko bisita gidatuak, prest!

Ondarearen Europako Jardunal-dien harira, Plentziako Turismo Bulegoak bisita gidatu berriak an-tolatu ditu urriaren 4rako (euska-raz) eta 18rako (gaztelaniaz). Goize-ko 11:00etan irtengo dira egun bietan, eta burdinak udalerriko historian izan duen garrantzia azalduko dute. Derri-gorrezkoa da alde aurretik izena ema-tea, hilaren 27a baino lehenago. ◀

Lemoiz

DYAk dirua batzeko kanpaina martxan ipini du, Lemoizen

Udalak iragarri duenez, datozen egunetan Errepidean Laguntzeko Elkarrekin (DYA) dirua biltzeko kan-paina bati ekingo dio, bai postaz, bai telefono bidez. Diru-batzea Lemoizen egingo dute; hortaz, auzotarrek telefo-no-deiren bat jaso dezaketela oharta-razi dute. ◀



Ikastaro eskaintza zabala, baina bakarra euskaraz

Lemoizko Kultur Etxeak ikastaro Eskaintza zabala prestatu du ikas-turte honetarako. Denera, 16 aukera egongo dira auzotarren gozamen-era-ko. Hala ere, horietatik guztietatik ba-karra da euskaraz: patinajea. Herriko EH Bilduren arabera, egoera hori ez da berria, «baina aurren, marka guztiak

gainditu dira». Bada, ikastaroak ira-gartzeko kartelean «Lemoiz euskaraz» logoa ageri da, Udalak euskararen era-bilera bultzatzeko asmoz martxan ipi-nitako ekimena, alegia. Hori dela eta, «Udalak esaten duena egiten duena-gaz» ez datorrela bat salatu du koali-zio abertzaleak. ◀

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etsen eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

TABERNA Unai JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNXUNAI@HOTMAIL.COM

PINTXO POTE OSTEGUNETAN
12:00 ETATIK
15:00ak ARTE

Portu Zaharra Bar

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

EKIN
Jatetxea

Bolue 4, Algorta - 94.608.04.62



Argazkilaria: David Herranz Esteban
Testu-egileak:
 Ander Herranz Uribarri (Berango, 1989)
 Mikel Illarregi Elberdin (Leitza, 1959)



Argazkilaria: Marisol Ramirez Fernandez
Testu-egileak:
 Alba Garcia Portela (Bilbo, 1988)
 Eider Bereziartua Agirre (Azpeitia, 1991)



Argazkilaria: Marta Iraurgi Mendoza
Testu-egileak:
 Olatz Sebal Larrañaga (Soraluze, 1983)
 Idoia Carramiñana Miranda (Bilbo, 1985)



Argazkilaria: Ivan Viña Alvarez
Testu-egileak:
 Leonardo Anisimov Ivan (Gorliz, 1997)
 Olatz Sanchez Lamikiz (Urduliz, 1981)



Argazkilaria: Itsaso Bartolomé Yarza
Testu-egileak:
 Alex de Isusi Garcia (Erandio, 1987)
 Lorea Madina Bilbao (Mungia, 1969)



Argazkilaria: Nerea Falagan Martin
Testu-egileak:
 Iñigo Bidetxea Erkoreka (Bakio, 1975)
 Oier Pastor Alonso (Lemoiz, 1990)



Argazkilaria: Ines Bermejo Larrañaga
Testu-egileak:
 Mirentxu Larrañaga Sueskun (Donostia, 1966)
 Egoitz Arruti Uria (Azpeitia, 1980)



Argazkilaria: Sonia Aoujl
Testu-egileak:
 Liz Fuldain Paul (Plentzia, 1988)
 Rebeca Solaetxe Estrada (Venezuela, 1984)



Argazkilaria: Patricia Merino
Testu-egileak:
 Iraia Aced Amonday (Plentzia, 1988)
 Jon Jauregi Aretxaga (Amorebieta-Etxano, 1977)



Argazkilaria: Luis Jauregialtzo
Testu-egileak:
 Miren Kareaga Espiniella (Getxo, 1962)
 Uxue Telleria González (Gorliz, 1997)

Argazkiak berbetan

ArgIHizkiak lehiaketako **erakusketak** urriaren 1ean zabalduko ditu ateak Kultur Leioan. Sari-banaketa egun berean izango da.

Urriaren 1etik 18ra bitartean, *ArgIHizkiak* literatura-lehiaketako 10 argazkiak eta horietan oinarritutako euskarazko 20 testu labor onenak batzen dituen erakusketa bisitatu ahaliko da Kultur Leioako erakusketa-aretoan. Epaileek testu laborrik onena aukeratu dute Mikel Illarregi Elberdinek (Leitza, 1959) egindakoa, eta testu labor-laburren arteko onena, Alba Garcia Portelarena (Bilbo, 1988). Hala, urriaren 1ean, eguna, lehiaketaren sariak ere banatuko dituzte erakusketa-

ren inaugurazio-ekitaldian. Hitzordua 19:00etan izango da, Kultur Leioan. Getxoko eta Berangoko erakusketetarako datak ere zehaztuta daude.

Egizu Getxo Euskaldun elkarteak eta HIRUKA komunikazio-taldeak antolatzen dute ArgIHizkiak, Uribe Kos-

Mikel Illarregi Elberdin leitzarra eta Alba Garcia Portela bilbotarra dira aurtengo irabazleak

tako hainbat udalegaz (Leioa, Berango, Getxo; eta Makomunitatea) eta zenbait elkartegaz (Berbots, Bizarra Lepoan, Aitxu!, Leioako berbalagunak) elkarlanean. Laugarren ekitaldi honetarako euren argazkiak helarazi

zituzten eskualdeko hamar argazkilaria profesionalak edo zaletuek. Hala, apiril-maiatzean egon zen hamar irudi horietan oinarritutako testu laborrak aurkezteko aukera; eta orain emaitza ikusarazteko ordua heldu da.

Aurten inoiz baino testu (224) eta parte-hartzaile (184) gehiago egon da; denera, 31 herritakoak. Uribe Kostatik 166 testu jaso dira, eta 138 parte-hartzaile uribekostarrak izan dira. Aipamen berezia merezi dute Uribe Kosta BHIko ikasleek; izan ere, Plentziako institutuko 100 lagunek 108 testu helarazi dituzte, institutuan bertan barne-lehiaketa antolatzeaz gainera.

ArgIHizkiak literatura-ekimenaren helburu orokorrak hurrengoak dira: jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatzea, eta Uribe Kostako argazkilariak eta euren lana sustatzea eta zabaltzea. ◀



Inaugurazioa eta sari-banaketa

Leioa

Urriaren 1ean, 19:00etan, Kultur Leioan

Erakusketak

Leioa

Urriaren 1etik 18ra
 Kultur Leioako erakusketa-aretoan
 Astegunetan: 10:00 - 20:00
 Jaiegunetan: 11:00 - 14:00 eta 17:00-20:00

Getxo

Azaroaren 16tik abenduaren 13ra
 Villamonteko kultur etxean (Algorta)

Berango

Abenduaren 15etik urtarrilaren 10era
 Berangoeta kultur etxean

info+: www.argihizkiak.com

hirukagendak

Uribe Kostako asfekaria

2015eko irailaren 24tik irailaren 30era arte



hiruka.eus



GETXO

Aurten ere yoga ikastaroa euskaraz, Egizuren bidez

Urriaren 5ean euskarazko yoga ikastaroa abiatuko dute Algortan, Egizu Getxo euskaldun elkarteak antolatutako. Saiok asteleheneretan eta eguazteteretan izango dira, ekainaren akabura arte, 19:30etik 21:00etara. San Nikolas ikastolako Haur Hezkuntzako lonjan emango dituzte eskolak, lehenengo hiru eguneretan izan ezik; hiru saio horiek Aldai Patronatuan (Karitate kalea, 1-behea, Algorta) izango dira. Hasier Rekondo irakasleak gidatzen

duen taldeak 12 urte beteko ditu aurten, eta bertan hasiberri zein esperientzia dutenentzako lekua dago. Ikastaroaren salneurriari dagokionez, hilean 32 euro ordaindu beharko dituzte parte hartu gura dutenek. Berbalagunek, sOrtuetako kideek, Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko bazkideek eta San Nikolas ikastolako kideek, ostera, merkeago edukiko dute; 27 euro pagatu behar-ko dituzte. Antolatzaileek adierazi

izen-emea: 619 935 544 / egizugetxo@gmail.com kontu-korrontea: Laboral Kutxa 3035 0067 66 0670062588

2015/09/25 - 2015/09/26

Itzubaltzeta Gaztetxearen

XI. urteurrena

Santa Eugenia plaza (Romo) | Getxo

Besteak beste, elektrotxaranga, *slacklin e* ikastaroa, gazte-bazkaria (6 euro) eta Honat taldearen erromeria egongo dira. Informazio gehiago, 2. orrialdean.

2015/09/25 - 17:30

Mi villano favorito 2 filma

Ander Deuna kultur aretoa | Barrika

Eguraldi txarra bada, beste egun batean egingo dute. Sarrera, doan.

2015/09/25 - 18:00

Envejecer en casa berbaldia

Nagusien etxea | Berango

Zainduz programaren barruan. Gaztelaniaz.

2015/09/26 - 15:00

Euskal SUP Race arraun-surf zirkuituko finala

Geltoki ondoko zubia | Plentzia

Profesional, zale eta umeen artean, ehun partaide baino gehiago egongo dira.

2015/09/26 - 19:00

Goatekea

Nagusien etxeko plaza | Berango

6oko eta 7oko hamarkadak gogoratuz. Mozorrotuta agertuz gero, zozketa batean parte hartzeko aukera egongo da. Eguraldi txarra bada, frontoian. Parte-hartzea, libre.

2015/09/26 - 21:00

Keep Calm musika taldearen kontzertua

Adierazleak: Eusebio (Aroa) | Getxo



Irailak 23, eguaztena

16:30 / 18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Txo, *MikiMak txikia* ikuskizuna, Urko kiroldegian.

Sarrera: 5 euro. Sopelan eroldatuentzat, irailaren 18ra arte salgai; gainontzekoentzat, hilaren 21etik 23ra.

19:00 «Domo geodesikoa eta bioeraikuntza» tailerra, udaletxeko plazan.

19:30 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen kalejira, Dunbots txarangagaz, Urkotik udaletxeko plaza-raino.

Irailak 24, eguena

20:30 Surf-zinema, udaletxeko plazako karpan. Besteak beste, *Basque Country Big Waves* dokumentalaren estreinaldia.

Irailak 25, barikua

19:30 Itsas kantak kalez kale, Erroia tabernatik abiatuta.

21:00 Gildas, Libe, Abalone Dots eta Tania de Sousaren kontzertua, udaletxeko plazan.

Irailak 26, zapatua

09:00 Euskal Herriko elkarten arteko surf-lehiaketa, Arriatera hondartzan.

10:00 Gari bateko furgoneten erakusketa, Arriaterako aldanan.

12:00 Kometa tailerra, eta festa, Arriateran.

18:30 Ricardo Somocurioren arte-erakusketa eta Peña Txuri Surf Taldearen argazkiak, Abxabiribil hondartzako sarreran.

18:30 Sustrai Beltzak Sound System, Atxabiribil hondartzako sarreran.

21:00 Audience, The Uski's, Kiko Veneno eta The Agapornis taldeen kontzertuak, udaletxeko plazako karpan.

Irailak 27, domeka

10:00 Tai xi ikastaroa, eta erakusketa, Arriatera hondartzan.

11:00 Bigarren eskuko azoka, udaletxeko plazako karpan.

13:00 Atun errea, udaletxeko plazan.

19:30 Fracking bertso-saioa, udaletxe aurreko plazan.

20:30 Kalejira Barinatxe hondartzara, Gibelurdiñek musika-taldeagaz.

21:30 *Desioak zerura*, Barinatxen. Farolxoak bolako dituzte zerura. Farolxoek txartelak, 2 euroan salgai, turismo-bulegoetan. Aimar del Pozo ume gaixoa laguntzeko izango da dirua.

Bertsoak: atsotitzak asmatzeko bidea

Zapatu honetan, irailak 26, egingo dute Esaera Zaharren Txapelketa, Plentzian. Parte-hartzaileak eta bertsozaleak goizeko 11:00etan batuko dira Eleiz plazan, triki-poteoan abiatuz, lehiaketari hasiera emateko asmoz. ◀

Txotxongilo-saioa, domekan, Areetan

Domeka honetan, irailak 27, *Euskal Herriko itsasoa* txotxongilo-ikusizuna eskainiko du Antzezizuna Ginol Taldeak, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Saioa 18:00etan izango da, eta sarrerak 5 euroan daude salgai. ◀

Bizikleta-asteburua, Urdaibain, urrian

Urriaren 3an eta 4an Urdaibain emango dute aste-akabua Egizuko berbalagunen bizikleta-taldeko kideek. Helduen eta familien taldekoek Gernikako aterpetxean igaroko dute gaua. ◀

info+ egizugetxo@gmail.com / 644 277 155



Hoy, última función ikusgai, Areetan

Itziar Lazkanok eta Ramon Bareak aktore zahar bi antzez-tuko dituzte: Niceforo eta Semiramis: bizitza errealean, senar-emaztea; agertokian, bikotea. Alegiazko azken antzez-kizun bat eskainiko dute, benetakoak ez diren pertsonaiak agertuko dira bertan. Elkarregaz biziko dute hori guztia. ◀

Noiz: Irailak 26, zapatua. 20:00
Non: Areetako Andres Isasi musika-eskola
Sarrera: 10 euro
Gaztelaniaz izango da

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Sarrera, doan.

2015/09/25 - 19:30

20 voces liburuaren aurkezpena

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Charo Begue psikopedagogoak idatzita. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/09/25 - 20:30

Kantagunea

Eliz plaza | Plentzia
Alde zaharretik abesten atera aurretik, entsegua egingo dute baselizan, 19:00etan. Parte-hartzea, libre.

2015/09/25 - 21:00

Radio Vinilo Dja

Adiskidetasun kalea (Areeta) | Getxo
Mesedeetako jaien egitarauaren barruan.

2015/09/25 - 22:00

El Despertar del Silencio taldearen kontzertua

Altzagako ontziraiekua | Erandio
Heroes del Silencio-ren omenezko taldea. Doan.

2015/09/25 - 22:00

La Txopera Electronic Party

Txopoeta auzoa | Leioa
Txopoetako jaien egitarauaren barruan.

2015/09/25 - 22:30

Bon Joviren omenezko musika-taldearen kontzertua

Eskola plaza (Areeta) | Getxo
Mesedeetako jaien egitarauaren barruan.

2015/09/26 - 09:00

I. Sukalki Lehiaketa

Txopoeta auzoa | Leioa
Txopoetako jaien egitarauaren barruan.
15:00etan lapikoen aurkezpena, eta 16:30ean banatuko dituzte sariak.

2015/09/26 - 10:00

Motorzaleen topaketa

Bulebarra | Leioa
Moon Riders taldeak antolatuta. Besteak beste, umeentzako jolasak, motor-ibilaldia, herri-bazkaria eta rock-kontzertua egongo dira. Izen-ematea: 5 euro. Informazio gehiago: moonridersbizkaia@hotmail.com

2015/09/26 - 13:00

Herri-kirolak

Eskola plaza (Areeta) | Getxo
Mesedeetako jaien egitarauaren barruan. Inazio Perurena jardungo da harriak altxatzen.

Adiskidetasun kalea (Areeta) | Getxo
Mesedeetako jaien egitarauaren barruan.

2015/09/26 - 22:30

Areetako Sound Gaua

Eskola plaza (Areeta) | Getxo
Mesedeetako jaien egitarauaren barruan.
Mangas eta Galkar Djek jarriko dute musika.

2015/09/26 - 23:00

Erromeria Haitzama taldeagaz

Txopoeta auzoa | Leioa
Txopoetako jaien egitarauaren barruan.

2015/09/27 - 09:00

24. Mendibike, mendiko bizikleta martxa

Kirodegia | Gortiz
Ibilbide bi: 24 eta 42 kilometrokoak. Egunean bertan eman daiteke izena. Informazio gehiago: www.men.dibike.net

2015/09/27 - 10:00

XX. Barraskilo Lehiaketa

Eskola plaza (Areeta) | Getxo
Mesedeetako jaien egitarauaren barruan.
11:30ean barraskiloak dastatu, eta 19:00etan sariak banatuko dituzte, Laguntasun kalean.

2015/09/27 - 10:30

Bizkaia Zubiko herri-lasterketa

Bizkaiko Zubiko plaza (Areeta) | Getxo
Mesedeetako jaien egitarauaren barruan. Bost urte beteko ditu probak.

2015/09/27 - 18:00

Oliver magoa

Eskola plaza (Areeta) | Getxo
Mesedeetako jaien egitarauaren barruan.

2015/09/28 - 18:30

Liburu-foruma

Udal liburutegia | Barrika
Toni Hill idazle bartzelonararen *El verano de los juguetes rotos* liburuia aukeratu dute. Gaztelaniaz. Sarrera doan.

2015/09/29 - 17:00-19:00

Ludoteka kalera

Ontziola plaza | Plentzia
Ez da beharrezkoa aurretik izena ematea, ezta kuotaik ordaintzea ere. Umeek tutoreak lagun duta joan beharko dute.

2015/09/30 - 20:00

Txorimaloren 10. urteurrena antolatzeko batzar irekia

Txiki-Otaegi (San Nikolas) plaza | Getxo
Eguazteneoro egingo dituzte batzarrak.



Andy Hansonen dosia

**JON
URRAZA INTXAUSTI**
Aktorea

Loreak, zinema eta sinergia ketuak

Tabakalera, euskal zinearen bultzatzaile sinergikoa eraiki bitartean, produktora askok atea itxi dituzte eta luzemetraiak estreinatuta zituzten zenbait zuzendarik ogibidea laga, euren hautsontzietan ez baitzen osteko zigarrokin gehiago kabitzen. Film bat aurrera ateratzea oso zaila da, ona egitea are zailagoa, faktore askoren sinergia behar da, bat dirua da noski. Hizkuntza minorizatu batetan filmatzeko, instituzioen bultzada ezin bestekoa da, luzemetraiarako bidea sustatu ezean, txalotutako Kimuak, ekimen herrena dira, Bilbao Athletic, Athletic gabe existitzea bezain absurdua.

Loreak bezalako produktu borobilak, Basque Country irudia munduan zehar zabaltzen du edozein torloju enpresak baino hobeto, eta funtsezko euskal marka zabalduz: euskara bera. Euskal kultura eta hizkuntza ninguineatu ohi duen estatuko zine akademiak, bere kalitatearen aurrean errenditu eta Oscar-etara joateko aurre hautatu du. Imajinatu *foreign language*-eko kategoriarako, urtero zuzenean bida genezakeela euskaraz sortutako film bat, balizko euskal akademia batek hautatua, eta *Loreak*-en maila noiz behinka lortuz, agian finalera heldu. Horretarako urtean film bat edo bi baino dextente gehiago ekoitzi behar dira, telebista publikoan *reality*-ak, debateak eta horietako aurpegi ezagunekin egindako udako programa freskuez gain, fikzio interesgarria produzitu behar da, zuzendari, gidoigile, aktore eta abarrok sasoian egon behar dugu, direlako faktore sinergikoen lerrokatzea gertatzen denerako, *Loreak* bezalako maisulanak sortu ahal izateko. Bestela, euskal zinearen etorkizuna Tabakalera baino, inoiz eraiki beharko ez luketen errauskailuan legoke-eta. ◀

Udagoieneko egitaraua prest dauka Kultur Leioak



Claire Ducreux-en dantzek zabalduko dute udazkeneko egitaraua. © KULTUR LEIOA

Sarreretan ohiko beherapenak eta gonbidapenak edukiko dituzte Kultur Leioako bazkideek. Urriaren 2ko *Refugiee Poetique* ikuskizuna doan izango dute.

Kultur Leioak 20 ikuskizun eskainiko ditu udagoien honetan: helduei begirako antzerki bi, hiru dantza proposamen, eta *Musika Arimarekin* zein *Musika Gertu* zikloetako sei kontzertu; umeei zuzendutako antzerki-ikuskizun bi, eta familiako kide denentzako zazpi saio. Horiez gainera, erakuske-

tak, zinema, lehiaketak eta abar egongo dira; Aterpe Leioa Gazteguneko, liburutegiko eta auzoetako aretoetako jarduerak ahaztu barik. «Bertoko eta nazioarteko artista garrantzitsuen emanaldiak eskainiko ditugu Kultur Leioan. Gure udalerriko mugak gaindituko dituen luxuzko egitaraua, kultura maite dutenen erreferente bila-

Urriko egitaraua

Urriak 2, barikua

20:30 Claire Ducreux-en (Frantzia) *Refugiee Poetique* dantza-ikuskizuna. Sarrera: 12 euro.

Urriak 9, barikua

21:00 Antonio Zambujo (Portugal) musikariaren kontzertua. Sarrera: 15 euro.

Urriak 16, barikua

22:00 The Two (Suitza) musika-taldearen kontzertua. Sarrera: 10 euro.

Urriak 18, domeka

18:00 Thomas Noone Dance taldearen *Alicia* familia-ikuskizuna. Sarrera: 5 euro.

Urriak 23, barikua

20:30 Sol Pico-ren (Katalunia) *One hit wonders* dantza-ikuskizuna. Sarrera: 12 euro.

Urriak 30, barikua

21:00 Mastretta (Madril) musika-taldearen kontzertua. Sarrera: 15 euro.

katuta», adierazi zuen aurkezpenean Esti Bilbao Kultura zinegotziak.

Euskarazko emanaldiei dagokienez, azaroaren 20an, Jon Gerediagak idatzi eta Ander Lipusek zuzendutako *Etxekoak* antzezlan eskainiko du Huts Teatroa-Arte drama konpainiak. Horrez gainera, abenduaren 26tik 30era, bueltan egongo da umeentzako *Gabonetan Antzerkira* zikloa. Bestalde, Topagunearen *Udagoieneko Osetera* egitasmoaren barruan, azaroaren 27an, *Silex* bere azken lana oholtzaratuko du Oreka TX taldeak. ◀

Bilbo Hiria pop-rock lehiaketako saioak, abian

Urriaren 29ra artean, eguen eta bariku denetan, Bilbo Hiria pop-rock lehiaketaren emanaldiak hartuko ditu Bilborock aretoak, 20:00etatik aurrera. Hain zuzen ere, musikari getxotarrak dauzkan Nazca taldeak irailaren 18an jo zuen, beste bi bandagaz batera, pop-rock atalean. Aurtengo edizioan, 643 taldek eman dute izena. Horietatik, 38 aukeratu dituzte kanporaketetarako; artean, Uribe Kostakoak diren edo eskualdeko kideren bat daukaten lau talde daude.

Nazca (Getxo eta Bilbo) alde batera utzita, Adam Giles Levy getxotarrak urriaren 15ean igoko dira Bilborockeko oholtzara. The Flying Scarecrow

sopeloztarrek urriaren 16an joko dute, metal-atalean; Uribe Kostako beste talderik ez da jardungo atal horretan. Azkenik, Sopela eta Bilboko taldeak dauzkan Dingos & Flamingos taldeak urriaren 29an edukiko du kanporaketa. Bestalde, Rise to Fall taldea (jatorri sopeloztarra dauka) gonbidatu dute urriaren 25ean jotzera, 2013an metal-kategoriako irabazlea izan zen.

Musikaren munduko profesionalen eta adituz osatutako epaimahaiak aukeratu dituzte talderik onenak. Final nagusiak azaroan izango dira, Bilborocken bertan: 12an, elektronika eta beste joera batzuetako finala, 13an metalekoa, eta, 14an, pop-rock arlokoa. ◀

Sakelako telefonoan euskal ipuinez gozatzeko aplikazioak harrera ona eduki du

Estudio Panpiki euskal enpresak 2013an sortu zuen *Ipuintxo* aplikazioa, umeei mugikorretan euskal ipuinak ikusteko aukera emateko. Ipuin horiek euskal mitologia dute oinarri; pelikula edo jolas interaktibo moduan ikus daitezke. Jolas interaktiboan, umeei pertsonaiakaz eta ipuineko elementuakaz jolasteko aukera dute. Aplikazioak harrera ona izan du, eta 15.000 aldiz instalatu da daborduko, baita diasporatik ere. *Ipuintxo*-ren arduradunak ipuin gehiago garatzen da biltza, eta urtea amaitu baino lehen, beste lau ipuin argitaratuko dituztela iragarri dute. ◀

info+: www.ipuintxo.com

«Baratzerako gogoa piztu nahi dut, liburuaren eta hitzaldien bitartez»

Jakoba Errekondo
agronomo usurbildarraren
berbaldiak abiatu du Uribe
Kostako Irakurzaleen
Txokoaren ikasturte berria.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Euskal Herriko baratzen jakintza batu eta zabaltzeko aitzakia da *Bizi baratzea* liburua. «Jakituria guztia liburuan bildu, eta hori apalean utzi beharrean, baratzerako gogoa piztu nahi dugu, herriz herri hitzaldiak emanez», dio Jakoba Errekondo Saltsamendik (Usurbil, 1961). Horren adibide, hilaren 23an Algortan emandako berbaldia.

Zer aurkituko du irakurleak *Bizi baratzea* liburuan?

Baratzari buruzko mundu oso zabal bat aurkituko du. Euskaldunon baratzak ez da bakarrik baratzak egiteko toki bat; gure landare-premiak asetzeko tokia ere bada. Baratzak dira lorategiak, erritualetarako landareak, fruta-arbolak... Kosmos horri guztiari buruzko liburu bat da *Bizi baratzea*. Ortua lantzeko lagungarriak direnak ez ezik, baratzari buruzko esarak, bertsoak eta olerkiak ere aurkituko ditugu, era oso grafiko batean eta erraz irakurtzeko moduan adierazita.

Sukaldarien lagungarri ere bada liburu hau?

Bai. Azken finean, landareak sakonean ezagutzeak ekartzen du landareen erabilerak askoz egokiagoak izatea. Landare baten historia, nondik datorren, bere izenak zer adierazten duen... Hori dena jakinez gero, hortik aurrerako denak errazagoak dira. Bai-



Besteak beste, emakumeen harrotasuna isiotu eta puztu gura du Errekondok, aurkezpenetan. ARGIA

na, liburuaren aurkezpenetan, sukaldariek gain, gure hizkuntza eta kultur paisaia ezagutzen duten lagunez inguratuta agertzen naiz.

Euskara ere irakatsi gura du *Bizi baratzea* lanak?

Noski. Egiten ditugun gauza guztiak hizkuntzatik sortuak dira; euskaldunon bereizgarri nagusia euskararen paisaia da. Horren zatia da baratzak.

Liburua ez da ohikoa. Beste jende bat erakarri duzu euskaraz irakurtzera.

Gakoa izan da gauza praktikoa bat egitea. Hizkuntza erraza eta testu motzak (laburrak) erabili ditugu, estetika eder batekin.

Gutxiak jaramon egin diote izenburuko *Eman eta hartu* esamoldeari.

Euskaldunok «harremana» edo «hartu-eman» hitzak erabili ohi ditu-

gu; hau da, eman baino lehenago hartu egin behar dela. Nik uste dut «eman-hartua» esan beharko genu-

“Euskararen paisaiaren zatia da baratzak; landare berak hamar izen izan ditzake”

keela. Bestela, eman gabe nola hartu? Are gehiago, baratzari buruz hitz egiten ari bagara. Baratzak ezin dugu ezer hartu, baldin eta lehenago ez badugu ematen. Bestalde, emankortasun hori emea da; fruitua, hazia... etorkizuna emeak dira. Gure baratzen inguruko ezagutzak asko dira, belaunaldi bateko emakumeengandik hurrengo belaunaldiko emakumeengana trans-

mititu den jakintza handia da. Horri omen eginez, «eman eta hartu» esamoldea erabili dut nik.

Agian, trikimailuen atalari aterako diote zuku gehien irakurleak...

Baratzak nahiz eta oso jaiak ez izan, landare bakoitzarekin batera datorren trikimailuen atalak asko lagunduko dio saiatua denari. Horiek erabilia, uzta askoz hobeagoa izango du.

Trikimailuen artean, adibiderik?

Bitxikeria asko dago, baina famatuena egin dena, agian, tomatea eta katuarena da. Katuak lo-kuluxka non egiten duen, han jarri behar da tomate-hazia. Izan ere, katuak beti aukeratuko du tokirik goxoena, eguzkia gehien ematen duena, beroena, lehorrena... Hain justu, horixe bera gustatzen zaio tomateari. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- Norbanakoak: 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 200 € + Urteko kuota: 33 €
- Norbanakoak: 50 € + Urteko kuota: 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ Bazkide Erabiltzailea

☐ Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____ €

Izena

NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea

Herria

Herrialdea

Telefonoa

E-posta

Kontu korrante zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoa 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKA emandako datuak fixategi automatikoki baten sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jaritzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikazioa helarazteko. Erabiltzaileek datuak erabiltzeko aurreko informazioa ematen jarraitu behar du. Erabiltzaileek ezin dute datuak erabiltzeko aurreko informazioa ematen jarraitu. Erabiltzaileek ezin dute datuak erabiltzeko aurreko informazioa ematen jarraitu. Erabiltzaileek ezin dute datuak erabiltzeko aurreko informazioa ematen jarraitu.

«Antzezlan bat maite ez baduzu, zelan lortuko duzu ikuslea horregaz maitemintzea»

Itziar Lazkano Setien aktore portugaletetarra *Hoy, ultima funcion* antzeztan dabil berriro, Ramon Bareagaz batera. Orain 20 urte aipatutako obra alde batera utzi behar izan zuten, bizitzaren gorabeherak tarteko. Areetako Andres Isasi musika-eskolan eskainiko dute saioa, eta azaroan, Madrilgo antzokietan ibiliko dira hiru astez.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Zer aurkituko dute *Hoy, ultima funcion* antzezlanak ikustera doazen lagunek?

Antzekizun baten erraiak zeintzuk diren sumatzeko aukera edukiko dute ikusleek, agertokiaren atzeal-detik antzezlanari begira egongo balira bezala. Hala, aktore zahar bi, Niceforo eta Semiramis, topatuko dituzte taula gainean; eguneroko bizitzan senar-emaztea, eta urte askotatik antzezle-bikotea; euren irudimenean soilik dagoen azken saio bat antzeztuko dute biek. Euren bizitzako azkena ere ez dago urrun.

Zer mezu bidali gura dio antzezlanak ikusleari?

Maitasuna bera, bi pertsonen elkarren artean senti dezaketen samurtasuna, eta agertoki baten gainean bizitza zein dibertigarria eta harrigarria izan daitekeen; azken finean, antzerkiarekiko maitasuna adierazi gura du lanak.

Irudikatutako azken saio hori eurek aukeratutako ikusleez beteta egongo da; autoreak eta aktoreak, denak belaunaldi ezberdinetakoak: Godot, Ionesco, Stanislavski, Maria Guerrero... Zer dakit nik! Ehun baino gehiago izango dira! Euren buruari gorazarre egin gura diote Niceforok eta Semiramisek; egia esan, ez da ikusle askorik agertuko saiora, euren irudimenean ez bada.

Harrera ona dauka antzezlanak?

Aipatu behar dut *Hoy, ultima funcion* antzezlanak orain dela 20 edo 21 urte estreinatu genuela, eta bere garaian harrera ona eduki zuela. Lanari Ercilla sa-

ria emateaz gainera, Ramon Bareak Getxoko aktore onenaren garaikurra jaso zuen. Baina, haurdun geratu nintzen, eta heldu zen momentu bat Semiramis izeneko atso hark ezin zuela sabela ezkutatu; utzi behar izan genuen. Gero, beste proiektu batzuk etorri ziren... Pabellon 6 egitasmoaren barruan, antzezlanari berriro ekitea erabaki dugu. Eta, egia esan,

“Egunero lan egin ahal izatea da iraupen-lasterketa honen arrakastarik handiena. Bokazio kontua ere bada antzerkia”

denborak ez du eraginik obran; arrakastatsua izaten ari da. Gainera, errazago egiten zaigu Ramoni eta bioi *Hoy, ultima funcion* antzezteko makillatzea, gu ere urteetan sartuak baikaude! Euskadin barrena bira egiten gabiltza orain; eta azaroan, Madrilera joango gara hiru astez.

Ramon Barea duzu bikote antzezlanean. Zelakoa da beragaz lan egitea?

Ramonegaz hasi nintzen antzerkian, eta niretzat maisu da. Egiten uzten dizun lankidea da; eman dezakezun dena kontuan hartzen du beti. Hori gutxi

balitz bezala, lasaitasunez lan egiten uzten dizu, eta oso maitekorra da. Bestalde, izaera sortzailea dauka Ramonek, eta antzerkia maite du, batez ere.

Agertokien inguruan egon daitekeena ez du gogoko; ez dauka arrakasta buruan. Baina, heltzen bada, primeran!

Nire ustez, ogibide honekiko maitasun osoz, egunero lan egin ahal izatea da iraupen-lasterketa honen arrakastarik handiena. Neurri handi batean bokazio kontua ere bada antzerkia.

Oparoa da zure aktore-lana. Gaitza bada ere, zelan laburbilduko zenuke?

Daborduko 30 urte daramatzat ogibidean. Logikoa da, trenetik jaisten ez bazara, lan batek beste bat ekartzea. Nire ustez, serioa izan behar duzu egiten duzun lanagaz; ondo jakin behar duzu zein tokitan eta zein egoeratan zauden. Momentu bakoitzean egiten dakizuna eman egin behar duzu momentu oro.

Bai. Gaitza da aktore lanetan emandako 30 urteak laburbiltzea. Baina, ondokoa esango dizut: profesio honetan barrena bidaiaitzen joan naiz txiri-txiri; eta nire eskuetara heldu diren lan txiki zein handi denak hartu ditut, maitasun osoz eta gogo handiz.

Hainbat sari irabazi dituzu...

Baten bat egon da hortik. Kar, kar... Zintzoki esango dizut: beti izaten da ongi etorria egiten duzuna jendeak aintzat hartzea; eskertzekoa da. Hala ere, jasotako sarien artetik bat aukeratzea ez da erraza



© LAURENT LEGER

izaten. Egin dituzun antzezlan denetatik ere gustukoekin zein duzun eskatzen dizutenean ere gauza bera esaten diet guztiei: egin dudana azkena edo momentu horretan egiten nabiltzen. Horrela da. Zuk esku artean daukazu proiektuagaz maitemintzen ez bazara, zelan uste duzu besteak maiteminduko dituzula horregaz.

Horrenbeste saririk ez dut eduki. Baina, zeinek egin zidan ilusio handiena aukeratu behar badut, lankideek eman zidaten *Jokulariak* saria da, zalanza barik. Emakume-aktore berri onenari *Ercilla* saria ere jaso nuen, horrelakoak hemengo antzezleei barik, Madrilekoei ematen zizkioten garaian. Nire lagun batek esaten duen moduan, gauza horiek zure altxoren kutxan gordetzekoak dira, eta gozatzekoak!

Antzezlanak, filmak eta telesailak egin dituzu. Horien artean zer gura duzu?

Kar, kar. Zelan erantzun ez dakizun eta azkenean beti gauza bera entzuten duzun galdera da... Aktore batentzat, hiru medioetatik edozein da ona. Hala ere, ni antzerkiagaz geratzen naiz; nolabait esanda, artisau-lana delako; denbora gehiago edukitzen duzu sortu ahal izateko, autorea ezagutu ahal izateko, antzezlanak kokatuta dagoen garaia aztertze edo lan egingo duzun jende-taldea hobeto ezagutzeko.

Telebista oso ondo dago. Kontua da askoz berehalakoa eta azkarragoa dela. Apurtxo bat zitalagoa da; bat-batekotasuna eskatzen dizu, eta horrek, askotan, ez du pentsatzeko denbora handiegirik

uzten. Zinema, berriz, liluragarria eta magikoa da. Atsegingarria da pelikula baten barruan mamia daukan pertsonaia eskuetan edukitzea. Zinema baino gehiago, antzerkia egin izan dut. Baina, egin ditudan filmak asko gozatu ditut. Hala ere, antzerkiagaz geratzen naiz ni. Antzerkian hasi nintzen aktore, eta antzerkian jarraitzen dut, lehenengo eguna izango

“Zintzoki esango dizut: beti izaten da ongi etorria egiten duzun lana jendeak aintzat hartzea. Eskertzekoa da”

balitz bezala, nire eskuetara heltzen diren proiektu denak hartuz eta landuz.

Umorea landu izan duzu, sarri. Zein da gustukoekin duzun generoa?

Genero biak gustatzen zaizkit, bai komedia, bai tragedia. Eskaintzen didaten paperak zailtasun apurtxo bat badauka edo arakatzeko aukera ematen badit, berdin zait zer generotan lan egin. Lan egitera behartzen nauten pertsonaiak atsegin ditut. Negar eginarazteari, barrea eragiteari bezain osasungarria dela deritzot. Egin ditudan antzezlan, film eta tele-

sail denetan gustura sentitu izan naiz, komedia zein tragedia gorabehera.

Film bat aukeratu behar izatekotan, zeinegaz gertuko zinateke?

Aho-zapore ona utzi zidan *Pecata minuta* (Ramon Barea, 1999) filmak; pelikulako gaiztoa zen moja baten papera egin behar izan nuen. Ederra da zugaz zerikusirik ez daukaten izaerakaz jolasteko aukera daukazunean, ume bat bazina bezala.

Izarren argia (Mikel Rueda, 2010) ere lan bikaina izan zen. Benetan gertatutako istorio batean oinarrituta dago. Gauzak horrela, euren amagaz kartzelan preso egon ziren emakume horiekaz egoteko aukera eduki genuen; hunkigarriak, eta, alde berean, ilea lazteko modukoak ziren euren testigantzak.

Egindako telesailen artean, zein duzu gogokoekin?

Halabeharrez, *Vaya semana* (ETB2) aukeratu behar dut, maila denetan oihartzunik handiena eduki duen lana delako. Besteak beste, Euskaditik kanpo ezagut gaitzaten balio izan du; baita hemen daukagun gatazka politikoa erlatibizatzeko ere.

Madrilen ere oso pozik egon nintzen *Buena jente* (La Sexta) egiten Molerogaz, Malena Alteriogaz, Carmen Ruizegaz eta beste lankideakaz. Esperientzia polita izan zen.

Eta antzezlanen artean?

Denakaz gelditzen naiz. Kar, kar. *Hoy, ultima funcion* antzezlanagaz geratzen naiz, asko maite dudalako. Zer dakit nik... *Bilbao, Bilbao* (Karraka, 1984) guztiz esanguratsua da; zalanza barik, arrastoa utzi zuen bilbotarren oroimenean. *Dulce puta* (Accion, 1988) ere gogora datorkit; prostituta baten papera egiten nuen bertan, atsegin benetan. Eta ezin ahaztu *El hombre que confundió a su mujer con un sombrero* (Txalo, 2000); batez ere, orain gutxi hil delako Oliver Sacks neurologoa. Aipatutako azken lan horregaz eman zidan saria Aktoreen Batasunak, Paco Sagarzagaz batera. Oso lan interesgarria izan zen; hainbat neurologoren aholkuak jaso genituen, antzezlanak aurrera ateratzeko. Bestalde, Arriaga Antzokian egin dudana azken lana aipatu gura nuke: *Brujas, ninfas y reinas* (2015). William Shakespeareren testuagaz borrokan ibili arren, atsegingarria izan da. Ondo egindako lanak bere fruituak ematen ditu.

Horrenbeste urtetan une pozgarri ugari izango dituzu kontatzeko, baita momentu tristeak ere.

Azken urte biak oso gogorrak izan dira lankide paregabeak galdu ditugulako; triste jartzen zaitu horrek. Alex (Angulo), Koldo (Losada), Marilu (Diaz Perez) eta Aitor Mazo galdu ditugu; bihotza zeharo hozmindu egiten dizu horrek, baina bizitzak aurrera darrai, eta guk antzerkia egiten jarraitu behar dugu.

Antzerkiko irakasle ere izan zara. Zure ustez zer da funtsezkoena aktore on bat izateko?

Funtsezkoa iruditzen zait lan egitea. Antzerkia gustuko eduki behar duzu, noski; baina, lehen aipatu dudana bezala, iraupen-lasterketa bat da. Pazientzia handia eduki behar duzu, eta egiten duzun hori asko maite; gogorra izaten da askotan. Antzerkian aurrera egiteko jarraitutasuna, trebakuntza eta lana beharrezkoak dira; baita umiltasuna ere. Oinak lurrean edukitzea beharrezkoa da. Hori guztia alde batera utzi barik, aparteko lanbidea da antzerkigintza. ◀



Euskal Herrian, azken zortzi urteotan garatu da arraun-surfaren diziplina. © GOAZEN UP

Arraun-surfaren zirkuitua osatzen dabilta Euskal Herrian, lehenengo aldiz. Plentzian izango dute finala zapatuan, Goazen UPen ongizate jardunaldiagaz batera.

Arraun-surfeko SUP zirkuitua Hondarribian estreinatu zen pasa den ekainaren 5ean. Bilbo, Zarautz, Deba eta Mundakatik pasatu ostean, azken proba egingo da Plentzian, zapatuan. Hasieran, Gorlizen egitekoa zen, baina urritasunen bat duten kirolarien parte-hartzea errazteko, Goazen UP ongizate- eta kirol-elkarte antolatzaiei

leak eta EHFS Euskal Herriko Surf Federazioak hondartzatik itsasadarrera aldatu zuten proba. Plentziako Udalak poztasunez hartu du ekimena.

Kirol lehia 15:00etan abiatuko da, metro-geltokiaren ondoko zubitik. Han izango dira Uribe Kostako arraun-surfariak ere: Alazne Aurrekoetxea sope-loztarra, sailkapen orokorreko burua; Aure Medina, zuzendari teknikoa eta

sailkapeneko bigarrena; eta Natxo Riera surfleri algortarra.

Hiru kategoria izango dira Plentzian: itsadarrean: herri-estropada, 5 kilometrokoa; gazteen estropada, neurri berekoa, 7 urtetik gorakoentzat; eta 12 kilometroko estropada profesionala. Azken modalitate horretan, maila bi izango dira. Alde batetik, emakumezkoek eta gizonezkoek izango dute 12 oin eta 6 hazbeteko taulak erabiliz lehiatzeko aukera. Beste aldetik, gizonezkoen proba izango da, 14 oineko taulakaz. Ibilbide luzean, zubitik Butroeraino egin beharko dute,

buelta eman, eta zubira itzuli. Sariak 18:30ean banatuko dituzte.

Ongizatearen jardunaldia

Euskal SUP zirkuituaren finala baliatuz, Goazen UP elkarteak SUP eta ongizatearen jardunaldia antolatu ditu. Besteak beste, tailerrak, esprintak, joakoak, eta SUP-yoga hastapen ikastaroak izango dira goizeko 11:30etik aurrera. Izena emateko, umeek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta helduek, 20 euro. SUP egiteko aulki egokitu erosteko baliatuko da diru dena. ◀

info+: www.goazensuprace.com

Elkarteen arteko surf lehiaketa, Sopelan



Sari-banaketa 19:30ean izango da, Atxabiribil hondartzako sarreran. © SOPELA KO UDALA

Az legez, Sopela Kosta Fest jaialdiak hainbat surf-ekimen ekarriko ditu aste honetan. Garrantzitsuena zapatuan izango da. Euskal Herriko Surf Federazioak (EHSF) antolatuta, Euskal Herriko elkarteen arteko surf lehiaketa jokatu da Arriatera hondartzan.

Goizeko 09:00etatik aurrera, honako modalitateen lehiak izango dira: open surf, open body, master, senior, 18 azpiko body, 18 azpiko surf, 16 azpiko surf, longboard eta sup surfa. Iaz, Bizkaiko 7 surf-elkartek eta Gipuzkoako hiruk parte hartu zuten proban. ◀

Waterpolo Gabon Kopa irabazi du Mediterranik



Gabon Kopak 26. edizioa izan du. © ASKARTZA

Club Esportiu Mediterranik eskuratu zuen pasa den aste-akabuan Leioako Askartza ikastetxeko igerilekuan jokaturako Waterpolo Gabon Kopa. Bartzelonakoak nagusitu ziren modalitate bietan, emakumezkoen zein gizonezkoen arteko lehiari. Izan ere, jokaturako partida denak irabazi zituzten neska-mutil katalanek. Joan Lluís Albellen Askartza taldea bigarren geratu zen gizonezkoen artean, bi partida irabazita. Leioa Waterpolo taldea, ordea, hirugarrena izan zen, emakumezkoen atalean. ◀

Galeako surf txapelketa abian da daborduko



Hamar mila bat zale biltzen ohi dira Galean.

Galeako surf txapelketa aurten ere Olatu Handien Munduko Zirkuituko proba izango da, hirugarren urtez. Jokatzeko epea urriaren 15etik otsailaren 28ra izango da, sei edo zazpi metroko olatu egokien zain. Bertan, nazioarteko 24 longboard surfleri onenek parte hartuko dute: Nic Lamb iazko irabazlea; Makua Rothman iazko bigarrena; Natxo Gonzalez plentziarra; Grant Twiggy Baker, 2013ko munduko txapelduna; Ken Collins; Greg Long; eta abar. David Bustamante Zuku eta Aritza Saratxaga gonbidatu dituzte. ◀

Euskal Ligako derbia, Algortan



Alazne eta Iragartze Fernandez bizkeneren ezin izango dute jokatu, lesioengatik. © BIZKERRE

Zapatu honetan abiatuko da Euskal Liga, eta kategoriako talde uribekostar biek derbia jokatu dute lehenengo jardunaldi horretan. Bizkerrek Erandio-ko Betiko Nesken bisita hartuko du Boluen, 16:00etan. Ligari begira, algortarrak faboritoen artean badaude ere, lehia berdintsua espero da. Izan ere, Euskal Ligako aurreko denboraldi bietan, berdinketa bi eta garaipen bana izan ziren talde bien artean. Garaipenak, gainera, bakoitzaren etxean izan ziren.

Bizkerre

Jon Elorzak zuzentzen dituen bizkeneren denboraldi-aurre bikaina egin

dute, Eibar, Arratia eta Euskal Ligako arerio zuzenak diren Elorrio eta Aurrea B erraz irabazita. Gasteiztarrek ez dute ahaztuko zuri-urdinek sartutako dozena erdi gol. Ildo horretan, algortarrak ahalegindu beharko dute euren atea itxita izaten, denboraldi-aurrean legez, iazko laugarren postua hobetu gura badute.

Erandioko Betiko Neskak

San Lorenzokoek ere lehenengo partidatik landu beharko dute sailkapen orokorra, iazko 7. lekua hobetzeko. Aurten laguntzarik izango dute, Bravok eta De la Fuente utzi arren, hiru kadete igo eta Basauriko jokalaririk hartu dituztelako. ◀

Fernandez eta Llano, nagusi Ugarte Sarian

Jose Luis Ugarte Bela Eskolaren Sariak «arrakastaz bete du 25. urtemuga», Abrako Itsas Errege Klubak egindako balorazioaren arabera. 200 lagunek parte hartu zuten estropadetan, pasa den aste-akabuan. Eguraldi eguzkitsua lagun, bela-ontziek aldeko haizeaz ere gozatu zuten, 18 korapiloko abiaduran.

Espainiako Kopan, Cartagenako Lola eta Carmen Coello nagusitu ziren. Proba hori Getxora ekarri zuten beren-bereri, urtemuga berezia dela eta. 420an, Abrako Monica Fernandez eta Juan Llano izan ziren Jose Luis Ugarte

te Bela Eskolaren Sariaren irabazleak. Laser 4.7n eta Laser Radialen ere, Bizkaian geratu ziren sariak, hurrenez hurren, Manolo Rey Baltarren eta Nicolas Viarren esku. Snipe kategorian, ostera, lehorrekoek irabazi zuten, Madrillgo Martin Bermudezek eta Joaquin Armengotek, Bizkaiko Amadeo Torrensi eta Maria Alonsori puntu bateko aldea aterata. Laser Standardeko garaipena Daniel Menendez asturiarrentzat izan zen. Optimist modalitatean, Juan Olabarrik Manex Albisuri irabazi zion erronka. Javier Torcida izan zen onena Optimist Bn. ◀

Urdulizko jauzi-txapelketa, arrakastatsua

Euskadiko Oztopo-jauziko Txapelketarako ipini zituen «helburu denak» bete ditu Euskal Hipika Federazioak: hiru egunean Urdulizko Igeltzera larreen harmailak bete-beteta egon ziren, eta txapelketa klubaren instalazioetatik kanpo egin arren, antolakuntza ona izan da. Jendartean hipika zabalatzeko baliagarria izan da, Federazioaren ustez. Kirol emaitzei dagokienez, Ibone Ibañez EAEko txapeldun bihurtu zen kimuetan. Era berean, Oihane Fernandez, Nerea Onaindia (Goiherri) eta Kevin Gonzalez nagusitu ziren haur, gazte eta helduen artean. ◀

Arkoteko beteranoak, nagusi Armintzan

Plentziako Arkote Beteranoak Batera elkarteak irabazi du ABE Arraunlari Beteranoen Elkarteko Liga. Plentziarrek 99 puntu eta sei bandera eskuratu dituzte; azkenekoa, pasa den zapatuan Armintzan jokaturako VIII. bandera. Bertan, plentziarrek egin zuten denborarik onena, baina Getxoko arraunlariak nagusiagoak izanda, lehenengo unean euren zieten bandera. Halere, astelehenean antolatzaileek jakinarazi zuten segundo bat falta zela Arkoteri ere aplikatu behar izan zioten denbora-sarian. Kalkulua zuzenduta, Batarari eman zioten. ◀

Bila zenbiltzan **marka guztietako tailerra**



10W40 olio + filtroa aldatzea

39'99

€* BEZa eta eskulana barne.



motrio pneumatikoa

175/65 R14 82T

49€* -an

*Prezio horiek karterrean 5 litroa arteko edukiera duten ibilgailuentzat dira. Ez dago sartuta filtroaren prezioa. Eskaintzak 2015/09/30era arte iraungo du eta/edo izakinak agortu arte, lehenengo gertatzen dena.

*Pneumatiko 1 aldatzearen azken prezioa. Muntaketa, orekatzeta eta hondakinaren kudeaketa-kostua (EO 1619/2005) ez daude sartuta (EO 1619/2005). Eskaintzak 2015/09/30era arte iraungo du, eta/edo izakinak agortu arte, lehenengo gertatzen dena.



Tutallermotrio
Garantía y Compromiso

Patrocinador oficial de la Liga Nacional de Fútbol Sala LNFs

motrio Algorta – Arriluce tailerrak

Errotatxu industrialdea, 4. pabilioia. 48993 ALGORTA - BIZKAIA

Tel.: 94 431 91 05 / 669 37 99 31

E-maila: algorta@talleres.motrio.es

www.motrioalgorta.es

Ordutegia, asteleheneetik ostiralera: 09:00 - 13:00 eta 15:00 - 19:00





Iaz legez, Euskal Ligan eta Espainiako Ohorezko Mailan jardungo dute, aldi berean, Getxoko Rugby Taldeko emakumeek.

Getxo Rugby Taldeak kamiseta berriagaz eta garaipen gosez ekingo dio denboraldi berriari, 40. urteurrenean. Gero eta neska gehiago daude, gainera, Errugbi Eskolan.

railaren 19an hasi zen ikasturtea Getxo Rugby Taldeko gizonen lehenengo taldearentzat. Faduran Ordiziaren aurka jokatuak derbian, jipoia ederra (14-50) hartu zuen taldeak, Brents Semmons entrenatzaile berriaren estreinaldian.

Salbuespen hori alde batera utzita, hori-beltzek hilaren 22an, martitzenean, izan zuten kurtso berria haste-

ko eguna. Ohi legez, talde nagusien eta Errugbi Eskolako 200 bat kideren aurkezpena egin zuten Artea merkataritza-gunean. Bertan, Andoni Saitua klubeko presidenteak azpimarratu zuen aurtengoa urte «berezia» izango dela, 40. urtemuga dela eta. Bere ustean, «40 urte egitea ez da erraza: lan pila egin behar da, eta jende askok pasatu behar du taldetik: jokalaria, de-

legatuak, babesleak...». Saituak esker oneko hitzak izan zituen denentzat, taldeari egindako ekarpenagatik. Urtemugaren ekimen gisa, Errugbi Eskolako kideek erakutsi zituzten jokalariek aurtengoa jantziak dituzten elastikoak eta kirol-arropa, klubaren hasierako urteetan erabilitakoaren oso antzekoa. Interesatuak ohiko lekuetan erosi ahal izango dituzte, jakina.

Kirol helburuak

Kirol lehiari dagokionez, Nerea Agirre emakumezkoen lehenengo taldearen kapitainak argi utzi zuen denboraldi

berrirako helburua: «guztioak pentsatu dugu pasa den urteko denboraldia gaitzitu behar dugula. Niretzat helburua da aurtengoa irabaztea; helduek finalera, eta finala irabaztea». Iaz, Euskal Ligako txapelketa izan ziren Getxoko errugbilariek, baina Espainiako txapelketa bigarren geratu ziren. Era berean, Agirrek azaldu zuenez, «zoriontsuak gara eskolan neska asko dabilzako eta apurka-apurka taldean neska gehiago hartzen goazelako».

Gizonezkoei dagokienez, Semmonsek «behetik hasi» gura du, harrobitik «etorkizunerako pausoak emanez». ◀

Emakume jokalariai babestu ditu Berangok

Berangoko Futbol Taldeko Zuzendaritza Batzordeak emakumezko jokalariai babesa agertu die, eura egin duen batzarrean. Taldea desager liteke, jokalaria gehiago lortu ezean. Julen Olalde presidenteak zabaldu duenez, Berango harremanetan ipini da nesken futbol-atala duten Bizkaiko beste klubakaz, eta arazoa «oro-korra» dela ikusi du, denak «oso justu» dabilzako eta taldeak betetzeko. Era berean, klubak entrenatzaile berria lortu du, aurrekoak utzi egin baitzuen. Kluba kexu agertu da egoeragaz: «taldea mantendu gura dugu», baina ho-

rrek bestelako kalteak ekar ditzake: «8 jokalaria baino gutxiago zelairatzen diren bakoitzean, Federazioak 300 euroko isuna jartzen du». Olalde argitu gura izan ditu aurreko HIRUKAn jokalariek esandako kontu batzuk: bazkideak 40 euro dira, berdin emakume zein gizonentzat; Udaletik ez dute emakumezkoen taldea izateagatik laguntzarik jasotzen, kideen eta gastuen arabera baino; mutilek legez, neskek ere primak kobratuko lituzketela Euskal Ligara helduz gero; eta Zuzendaritza leporatu zioten erantzun txar bat pertsona batena baino ez zen izan. ◀

Gorliz Mendibike Martxa egingo dute domekan

Mendibike elkarteak antolatuta, domekan Gorlizko 24. Mendibike Martxa egingo dute. Goizeko 09:00etatik aurrera, parte-hartzaileek ibilbide bi izango dituzte aukeran: 24 eta 42 kilometrokoak. Haur eta gazte martxak ere izango dira. Proba luzean, Andra-kamendi, Jata, Urizarmendi eta Ermua mendiak zeharkatuko dituzte. Izena emateko azken eguna eguna izango da. Federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta federatuta ez daudenek, 18 euro. Zapatuan eta domekan euro bi garestiagoa izango da. ◀

info+: Kirolprobak.com

Getxoko Miliako behe-kategoriak, eskualdekoentzat

Ehunka atletak parte hartu zuen, pasa den zapatuan, Itxartu elkarteak eta Getxoko Atletismo Taldeak antolatutako Getxoko Milian. Sari nagusiak eskualdetik kanpo joan baziren ere, Irati Llorente berangoztarra eta Ane Aranaga sopeloztarra nagusitu ziren kadetetan eta haurretan, hurrenez hurren. Kimuetan, Vera Saez getxoztarra eta Markel Fernandez sopeloztarra irabazi zuten. Ariane Alonso eta Eder Manzanos leioztarrak, osterar, lehenengoak izan ziren benjamin aurrekoetan. Azkenik, Aitana Medina getxoztarra txikirik onena izan zen. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

1		9						
		8						4
6				8	1		7	
5				7			3	
	9				2			
			6					9
				3				
7		4		2			9	5
9	6	5			7	2		

					3		8	7
8			4	9				
7		6				4		
	4				9		7	
			8	3				1
9		2			6			
								8
	2		3			1		
		3		4		2		

Soluzioak

6	9	8	7	5	9	6		
7	3	4	1	2	3	7		
8	2	1	9	3	6	8		
3	1	7	6	5	8	4		
4	6	3	1	2	3	6		
5	8	2	4	7	9	6		
6	4	3	5	8	1	9		
2	5	8	7	9	3	1		
1	7	9	2	6	4	3		

5	9	2	8	4	9	3	7	1
6	9	1	4	5	7	3	8	2
8	3	7	1	2	6	9	5	4
4	5	3	6	1	7	2	8	9
1	2	6	4	3	8	7	9	5
9	8	7	6	5	9	4	1	3
3	6	4	2	5	8	1	4	7
2	1	6	7	9	2	5	4	8
7	8	5	3	6	4	1	9	2

6	2	8	3	7	5	1	9	4
5	1	4	7	6	4	2	3	8
4	3	6	8	1	9	2	5	7
1	4	9	6	3	8	5	7	2
9	8	7	2	5	4	3	6	1
3	7	1	2	6	4	8	5	9
8	1	7	9	4	6	2	3	5
3	4	9	7	2	5	1	6	8
4	9	7	8	1	4	9	2	5

	2						9	
3			7					
8			6	4				
		4		1		5		
							8	6
2				3				1
7			1				3	4
	3							
		1	5	7		8		

Zorion agurrak

Urtebetetzea, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



JANIRE
PLENTZIA
Zure lagun barrikoztarraren partez

Zorionak, Janire!!!! Egun ederra igaro ezazu hogeita guztiak ospatzen! eta belarriak prestatu itzazu!! jajaja... Jarraitu izaten zaren modukoa, paregabea! Musu handi bat!



AITZIBER
SOPELA
Zure kuadrilla... eta neska bat

Texasen sustrai barrenetatik ulertzeko moduan, Euskal Herritik zorion agur bero bat zuretzako!! Musu pilo!



THOR
ERANDIO
Berbots

Zorionak Thor! Erandioko titiriteroa beti gazte! Egun ederra igaro ezazu! Musu handi bat!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Aste honetan, ekialdera begira egongo zara, eta sentimendu asko izango baduzu ere, inbidia gailenduko da.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Eta esnatu zenean, dinosauro denek bertan jarraitu zuten; benetako irabazleak haiek zirela behin eta berriro esaten.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Paratu arreta kostaldeari: espero ez duzun mezua ailegatuko zaizu handik, ez oso berandu. Zuk ikusi zelan jokatu, eta erantzungo duzun ala ez.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Zenbaki-dantzari arreta jarriko diozu, auzokideen esperientziak lagun baitezake etxeko arau eta azturak aldatzen.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ez utzi furgoneta bide erdian, matxuratuta. Aurrera jarraitzeko laguntza eskatuz gero, ez zaizu bultzatzeko besorik faltako.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Senide denekaz haserretzeak ez du zentzurik; gutxienez, berba batzuen kontura. Ahalegindu jarretara aldatzen, egoera konpontzeko pausoak eman.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Garaipena ospatuko duzu, baina lasai-lasai, zerruertzean hodei beltzak trumoika hurreratzeko ikusiko dituzulako.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Gauzak argi adierazten direnean, badago batzuk eta besteak haserrearazteko aukera. Baina, aldi berean, haien errespetua irabazteko ere bai.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Jakinduriak mugak baditu ere, ezjakintasunak ez du mugarik. Agian horregatik, arrazoi ez duenak oihu handiak bota ohi ditu.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Gordeta duzun zure sekretu hori inork jakin ez dezan, modurik onena duzu inori ezer ez esatea. Egia hutsa ere gauza sikua ei da.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Kulturagatik ez bada, kirolagatik edo elkartasunagatik izan daiteke, baina aste-akabu honetan Plentziara joanez gero, ederto pasatuko duzu.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Hartu patxadaz aste-akabu hau, lagunakaz eta ezagunakaz zoazela. Bakoitzak bere gurutzea daroa eta.



74 abentura Himalaian

The Great Himalaya Trail bidea oinarri hartuta, Iñigo Iruretagoiena mendizale getxoztarrak 74 egun eman ditu Nepalgo mendilerro hori ekialdetik mendebaldera gurutzatzeko, Taplejungetik Simikotera. Bidean, hainbat zortzimilakoren kanpamentu nagusietatik igaro da.



IKER RINCON MORENO

Trekkinga eta mendia maite dituzten guztien buruan dago Nepal. Herrialde horren lurralde gehiena Himalaia mendilerroan dago, eta bertan daude munduko mendirik altuenetarikoz batzuk, esaterako Everest (8.848 metro), Kangchenjunga (8.586 metro), Makalu (8.462 metro) eta Annapurna (8.091 metro). Horren jakitun, Iñigo Iruretagoiena mendizale getxoztarrak Himalaia mendilerroa, Nepal ingurutik, alderik alde gurutzatzeko bidea hartu zuen iaz, azaroaren amaieran. Denbora luzea zeroan buruari bueltaka, Himalaia inguruan zerbait egin gura zuela eta. Lagun batek Nepalgo mapa handi bat ekarri zion Katmandutik, «ia bi metroko luzerakoa!». Urte bi eman zituen hari begira, bide posibleak aztertzen...

Azaroan, lan-kontratua amaitu zitzaion, eta hura berriztatu arte, 6 hilabete eman behar zituen langabezian; «jende normalak lana bilatuko zukeen egoera horretan, baina nik une hori aprobetxatu nuen nahi nuena egiteko», azaltzen du. Hori horrela, Katmandurako bidaia-txartela erosi, 17 kilogramoko motxila leporatu, eta Nepalera bidea hartu zuen.

Katmandun, 12 egun eman zituen, bertakoen bizimodua aztertzen, beharrezko baimen batzuk lortzen ahalegintzen, eta ingurura egokitzen. Thamel auzoan, 10 mapa erosi zituen, eta abenduaren hasieran, motxila lepoan, Taplejungera joateko autobusa

hartu zuen. Ia 26 ordu eman zituen Katmandutik Taplejungerako bidaian. Nepal ekialdeko muturrean dagoen herrixka hartatik, Simikoterako bideari ekin zion: ia 2.000 kilometroko eta 74 eguneko abentura, mendian barrena, eta 3.000 metroko altueran, batez beste. Tarte handietan, *The Great Himalaya Trail* bide ezagunari jarraitu zion; hala ere, batzuetan, beheko bidea egiteko beharra ikusi zuen. Izan ere, Nepalgo

Taplejungetik hasita, 3.000 metroko altuerako bideak egin ditu, baina 5.500 metroko altuera ere gainditu du getxoztarrak

inguru batzuk mugatuak dira, «ez dizute bakarrik joaten uzten. Leku horietatik pasatzeko, gidari bategaz joan behar duzu, agentzien bidez.. ez nengoen horretarako prest», azaltzen du getxoztarrak.

Abenturaren hasiera, gogorra

Iruretagoiinak akorduan du lehenengo egunak gogorrak izan zirela. Abenduaren 10ean, Taplejungetik gora egin zuen, Kangchenjungarako bidean. Hiru egunen buruan Ghunsara heldu zen, eta beste egun bi ibili ostean, zortzimilakoaren kanpamentu nagu-

sira heldu zen, gauez. Bertan, gaua egiteko kanpindenda muntatu zuen. Une hartan, elurra mara-mara hasi, eta konturatu orduko, dendako oihala tolesten hasi zitzaion. Goizaldean, Ghunsara jaisteko ahalgina egin zuela gogoratzen du, baina elur ugari egin zuenez, ez zegoen biderik. Abenturaren hasiera baino ez zen...

Egoeraren jabe, abandonatutako herri batera joatea erabaki zuen, denboraletik babesteko, eta bertako etxebizitza batean eman zituen hurrengo 54 orduak, botaka eta beherakoagaz. Eguraldia hobetu ostean, beheara egitea lortu zuen; beste herrixka batera heldu arte, Khangpachenera. Bertan, lau egun eman zituen, 18 gradu zero azpiko tenperaturaren, halako egun batean, elurretako lehoinabarrari jarraitzen zebilen talde bat aurkitu zuen arte. Haiek eman zuen egun bat, Gunsha herrira jaitsi arte.

Zortzimilakoen kanpamentu nagusien bila

Bertatik bidaia berrabiatu zuen, Makaluko kanpamentu nagusira heldu guran. Ezinezkoa egin zitzaion, bota zuen elurraren elurraz; hala, Everesteko kanpamenturako bidea hartu zuen. Bide horretan, «izugarritzko» mendi-lepoak gurutzatu ostean, Luklatik sartu zen Everesteko eremura. Hori guztia igaro ostean, zailtasun handiko Tashi Lapcha pasabidea zeharkatu zuen, Rolwalingera sartzeko asmoagaz. Hala ere, ez zuen lortu, eta beheara egin behar izan zuen, Langtangera. Bertatik Gosaikunda lurarako bidea hartu zuen. Inguru hartan egun bi eman zituen, mendi-lepo zehatz baten bila. «Ordu pilo eman nuen horren bila, elurretatik bidea eginez, harik eta aurkitu arte. Hori ikustean negarrez hasi nintzen, eta gora egin nuen zoro baten moduan», gogo-

ratzen du Iruretagoienak. Mapak zerotzan eskura, baina ez zuen inolako GPSrik. Horrek zailtasun gehigarria ezartzen zion abenturari, «Himalaiako bideetan ez dagoelako inolako markarik», azaltzen duenez. Ibilaldiaren une hartan, urrunean herrixkaren bat edo beste aurkituko zuelakoan zegoen, baina ez zegoen ezer. Hala, aurrera egin, eta magal batetik jarraitu zuen, laku baten ondoan zegoen herri batera iritsi arte. Bertan igaro zuen gaua, eta hangoakaz berba egitean, txundituta gelditu ziren getxoztarrak; «ez zuten sinesten nondik nentorren, hau da, haranaren bestaldetik. Nire gidariagatik galdetzen zidaten, eta bakarrik nindoala esatean, txundituta gelditzen ziren: *Ēklai?* (bakarrik?)».

Iruretagoienak bidaia osoa grabatu du bideo-kamaragaz; 30 orduko irudiak ditu, eta dokumental bat egiten nahi du

Hurrengo egunean, ibiltzen jarraitu zuen, eta Syapru Besira heltzean, okin baten etxean igaro zuen gaua. Ondo baino hobeto gogoratzen ditu Iruretagoienak pertsona horregaz igarotako momentuak: «Itzela izan zen! Lehenengo aldiz bizarra egiteko aukera izan nuen bertan, baita dutxatzeko ere». Izan ere, azaltzen duenez, Himalaia zeharkatzen emandako 74 egunean, «txorrota baten azpian» dutxatzeko 3 aukera baino ez zituen izan. Eguneroko garbitzen zuen bere burua, «baina ahal nuen moduan». Okinaren etxetik, Tipling zeharkatu, eta Manasluako noranzkoa hartu zuen. Ondoren, Dharapani guru-

tzatu, eta Jagatera ailegatu zen, Annapurnara sartzeko helburuagaz. Hala ere, beste *checkpoint* batez egin zuen topo bertan. Hango poliziek ez zioten aurrera egiten utzi, eta haiekaz izandako eztabaida sutsu baten ostean, derrigorrez atzera egin behar izan zuen mendigoizale getxoztarrak. «Pasabide klabea zen hori, zuzenean Annapurnako trekkingera sartzeko bidea baitzen», azaltzen du. Hala ere, ibilitakoa berriro egin, eta Gorkharaino jaitsi behar izan zuen. Hiruzpalau egun eman zituen beheko bidetik oinez, Besisaharrera heldu, eta handik Annapurnako eremura sartu arte. Bertan, Muktinathen, oinetako atzamarrak izoztu zitzaizkion emakume baten erreskatean parte hartu zuen Iruretagoienak. Akorduan duenez, emakume haren taldeak goizeko 03:00etan hasi zuen Thorong La gainditzeko bidea, gidari batez. Getxoztarrak, oster, 07:00etan ekin zion bideari, eta ordu eta erdiaren buruan, taldea harrapatu zuen. «Oso motel zihoazen, 5.000 metrora geunden, eta emakumea zapatiletan zihoan. Akats handia izan zen hori, eta helikoptero bat deitu behar izan zuten Katmandutik bila etortzeko», oroitu da.

Azkenengo urratsak

Annapurna gurutzatu ostean, *far west*-era heldu zen Iruretagoienak: Dolpo herria, Nepalgo mendebaldean. Bertan, Dunaitik Jumla ibili, eta Rara lakua zeharkatu zuen ezkerretik, Himalaiako goiko bidea berriro hartu arte. Gero, bizkor ibili behar izan zuen, hiruzpalau egunean Simikotera heldu ahal izateko: «goizean, gauez irteten nintzen, eta arratsaldean ere, gauez heltzen nintzen». Oso arin egin behar izan zuen etxera bueltatzeko hegaldia hartzeko atzera-kontaketa hasten zelako. «Bidea alde batera utzi

nuen, eta Simikotera zihoan erreka bat jarraitzeko apustua egin nuen. Erreka horrek eraman ninduen Simikotera», aitortzen du mendizaleak. Bertan, Nepalgunera joateko hegazkin txiki bat hartu zuen, eta gero bertatik Katmandura zihoan beste hegazkin bat. Guztira, hiru egun behar izan zituen Simikotetik Katmandura heltzeko.

Maparen erritua

Iñigo Iruretagoienak 74 egun eman zituen, abendutik otsailera bitartean, Himalaia ekialdetik mendebaldera gurutzatzeko. Bakarrik, GPS barik, 17 kilogramoko motxila batez, eta bidean aurkitutako herrixketan lortutakoa jaten, «baldin eta zerbait lortzen banuen». Katmandun erositako 10 mapak jarraitu zituen, eta ez du ahaztu, mapako bide guztia gainditzen zuen bakoitzean, mapa erretzen zuela, eguna amaitzean... Dioenez, «erritual modukoa zen; aurrera egiteko laguntzen zidan», azaltzen du. Bidea bakarrik egitea «benetako abentura» dela dio getxoztarrak, «izugarria da, den-dena sakontasun gorenean bizi duzu, edozein gauza, txikia bada ere... Norbaitegaz eginez gero, hori guztia ez da existitzen». Hasierako intoxikazioak alde batera utzita, bidean bizitako momentu txarren inguruan galdetuz gero, getxoztarrak dio ez duela momentu txarrik igaro, «behin erori nintzen, eta kolpe handia hartu nuen. Hiruzpalau egun, hanka eta gerria minduta, txarto ibili nintzen, baina une txar-txarrik ez. Ez nuen bizia arriskuan jarri inoiz», aitortzen du.

Himalaian egindako bidaia osoa grabatu zuen Iruretagoienak bideo-kamara batez; guztira, 30 ordu batu ditu irudietan, eta horiekaz dokumental bat egin gura duela iragarri du. ◀

Ezkerrean, Dhorpatanen igoera. Goian, Dolpo inguruko bertokoakaz herrixka batean eta Everest ingurua. Behean, Chame herria, Everest inguruan eta Annapurnako kanpamentu nagusia. IÑIGO IRURETAGOIENA





Mundukatuak

Mikel Zaton Orcasitas algotarra

«Katalunian betidanik dute nazio pentsamendua»

Plebiszitu-hauteskundearen erdian da Mikel Zaton Orcasitas algotarra. Bere ustez, oraingoak «ez dira beste hauteskundearen modukoak. Zerbait garrantzitsua gerta daiteke, eta [independentziari] baietz ateratzen bada, argi dago mezu zuzena bidaliko diotela Espainiako Gobernuari. Jendeagaz hitz egitean, gehienbat ilusioa eta ziurgabetasuna ikusi ditut». Katalunian, nazio pentsamendua «betidanik izan dute».

Zatonen iritziz, «azken urteotan gertatu dena ez dago atzera botatzetik». Horren isla ei da herritarren artean dagoen kohesio handia: «politikoki dagoen apurketa argi ikusten da komunikabideetan», baina «sozialki ez dago horrelakorik: lagunen artean, bat unionista bada eta bestea independentista, gaia ateratzean eztabaida gogorak daude, baina gatazkarik ez». Algotarra 2012ko urtarrilean hel-

du zen Bartzelonara, master bat egiteko. Halere, 2013ko ekainean joan zen orain bizi den Aiguafreda herrira, han egiten baitu lan, eta «ez nituelako eguneror ordu bi autoan eman gura». Udalerrriaren zati handi bat Montseny par-

“ Ez dira beste hauteskunde batzuk. Zerbait garrantzitsua gerta daiteke ”

ke naturalaren parte da, eta mendira joateko gune «paregabea» da. Bestalde, hainbat leku interesgarri daude ikusteko: Can Brullgo trikuharri handia; Congosteko bide erromatarra; eta Aiguafreda de Dalteko Sant Marti eliza erromanikoa eta kriptak. Ostera, vegano ez direnentzat, Aiguafredak badu bestelako eskaintzarik: gastronomi-

koa. Bertan, txerriki lantegia dute, enpresa ezagun batena. Butifarrak, lukainkak eta fuet-a ekoizten dituzte. Horiek dira inguruko jakirik ezagunak, *pa amb tomaquet* famatuagaz batera. Edari aldetik, cava eta ratafia (intxaur eta beste fruituen pattarra) dira hango berezitasunak.

Alabaina, Zatonek ez du Aiguafreda parrandarako aholkatu. 20 kilometrorara dagoen Vic hirian, ordea, «mugimendu eta giro gaztea dago, unibertsitate-ikaskale ugari dagoelako». Bertan, artisau-garagardo asko ere bada. Horretaz gainera, Vicen alde zaharra «oso polita» da, Erdi Arokoa. «Santuen hiria» lege ezaguna da: 30 bat eliza bisita daitezke; bakoitza, santu ezberdin bati eraikia. Historian, Vicek garrantzi handia izan zuen Ondorengotza Gerran, bertan sinatu baitzen Gaztelako Felipe Varen aurkako Vigatansen Ituna, 1705ean. ◀

NOR DA

Nongoa

Algortakoa.

Adina

27 urte.

Zertan dabil

Ingeniaritza-enpresa batean beharrez, eta Lan Arrisku Prebentzioa masterra egiten.


Ikasketak

Meatzen Ingeniaritza Teknikoa eta Herri-lan masterra.

Noiz arte Aiguafredan?

Ia lau urte daroatza Katalunian, eta ez daki noiz etxeratuko den, baina Euskal Herrira bueltatu gura du.

NON DAGO



Lurraldea

Herrialde Katalanak.

Azalera

70.520 km².

Herria

Aiguafreda.

Biztanleria

2.500.

Hizkuntzak

Katalana da bertoko hizkuntza (Herrialde Katalanetan, 11 milioi hiztun dira) eta koofiziala da espainolagaz eta aranesagaz (Vall d'Aran eskualdean) batera. Independentzia aldarrikatuz gero hiru hizkuntzek koofizial izaten jarraituko lukete, subiranisten arabera. Printzerriko biztanleen %36k darabilte katalana ohiko hizkuntza lege, %46k gaztelania, %12k biak, %0,03k aranesa eta %6k beste hizkuntza batzuk.

Dirua

Euroa.

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua